Tituladunen enplegu tasa (7, 8)	%	86,1	83,8	86,8	85,5	77,6	-	77,8	-	77,4	-
Ikasleei dagokien enpleguaren tasa (7, 9)	%	87,6	90,2	90,7	94,4	92,3	-	92,1	-	86,5	-
Ikasketak amaitu dituztenen jarduera tasa (7, 10)	%	94,7	92,5	93,6	92,5	89,8	-	91,9	-	91,3	-
Lan merkatura sartzeko denbora (7, 11)	Hilabeteak	9,5	8,5	10,4	9,1	8,5	-	7,8	-	7,9	-

(1) Matrikulatu ez ziren ikasleak (sarrera urtean gehi bat, edo sarrera urtean gehi bi), promozioko ikasle kopuruaren artean zatituta.

(2) Ikasketa urtean gaingidutako kreditu kopurua, ikasketa urtean matrikulatutako kreditu guztien artean zatituta.

(3) Ikasketak zegokien urtean eta urtebete beranduago amaitu zituzten ikasleak, promozioko ikasle kopuruaren artean zatituta.

(4) Ikasketa urtean gaingidutako kreditu kopurua, ikasketa urtean aurkeztutako kreditu kopuruaren artean zatituta.

(5) Lehendik ere matrikulatuta egon ziren ikasgai beretan matrikulatuta dauden ikasleen kop.

(6) Ikasle errepikatzaileen kopurua, ikasketa urtean matrikulatutako ikasle kopuruaren artean zatituta.

(7) Lau urte lehenago beren ikasketak amaitu zituztenei dagokiena.

(8) Enplegu ordaindua duten pertsonen kopurua (jarduera independentea gauzatzen dutenak), Lanbide inkestako emaitza guztien artean zatituta eta %-tan adierazita.

(9) Hirugarren mailako prestakuntzari (unibertsitatekoa, edo goi mailako lanbide heziketa) lotutako enplegua duten pertsonen %.

(10) Lanean ari diren pertsonen eta, lanik ez badute ere, bila dabilzan eta lanean hasteko prest dauden pertsonen kopurua, Lanbide inkestako emaitza guztien artean zatituta eta %-tan adierazita.

(11) Karrera amaitu eta lehen enplegua lortu bitartean igarotako denbora.

(12) 2010/11, 2011/12 eta 2012/13 ikasturteetan, graduak adierazleek lizentziaturetatik eta ingeniarietatik egokitu behar izan duten ikasleen emaitzak hartzen dituzte kontuan.

Ikasleen errendimenduarekin lotutako tasa gehienek ez dituzte graduako titulazio berrien datuak erakusten, ikasle asko lizentziaturetatik eta ingeniarietzetatik etorritakoak baitira.

Enpleguari lotutako tasei eta datuei dagokienez, egungo finantza eta ekonomia krisiak izan duen eragin handia kontuan hartuta, ez dute horrenbeste egin okerrera.

2012/13 ikasturtean, Fakultateko graduak ezartzen jarraitu dugu, honako fase hauek gauzatuz:

Graduetara sartzeko mugak

Ikastegiko Batzarrak, 2013ko otsailaren 6ko bilkuran, graduetara sartzeko 2013/14 ikasturterako mugak proposatu eta onartu zituen. Honela geratu ziren: Biologia (120), Matematika, Fisika, Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa (80), Geologia eta Ingeniaritza Elektronikoa (50), Bioteknologia eta Biokimika eta Biologia Molekularra (40).

Sartzeko muga horiek bat datoz aurreko ikasturtekoekin. Mugak bere horretan uztea erabaki zen bederatzi graduetako koordinatzaileekin eta sailetako zuzendariekin zenbait bilera egin ondoren. Hala ere, Bizkaiko Campuseko Batzarrak proposamena onartu bazuen ere, 2013ko martxoaren 21ean Gobernu Kontseiluak Biologiako Gradura sartzeko muga 90 ikasletan uztea erabaki zuen.

Lehen, bigarren eta hirugarren mailak ezartzeko prozesuaren segimendua

2010/2011 ikasturtean hasitako dinamika berarekin jarraituz, urtarrileko ohiko deialdia eta ekaineko/uztaileko apartekoa amaitu ostean, emaitza akademikoak aztertu genituen.

- Txosten bat egin genuen urtarrileko ohiko deialdia amaitutakoan. Ondoren, Kalitate Batzordean eta Ikastegiko Batzarrean aurkeztu genuen (2012ko otsailaren 1ean). Aipatu txostenean emaitzak aurreko ikasturteetan (dagoeneko lehen eta bigarren maila ezarrita zituztenak) lortutakoekin alderatu genituen eta hirugarren mailako emaitzak ebaluatu. Indarguneak eta hobekuntza arloak azaldu ziren.
- Lehen aldiz, emaitza akademikoak lehen eta bigarren mailetako ordezkariari aurkeztu zitzaizkien, irakasgai batzuetan lortutako emaitza txarren arrazoiari buruz zuten iritzia ezagutzeko. Beren hausnarketak irakasle batzuek lehendik egindakoen antzekoak izan ziren:
 - Ikasle askok ez dituzte irakasgai horien egin batxilergoan.
 - Lehen hilean irakasgai batzuetara ez joaten hasten dira.

Datozen urteetan ekintza honekin jarraitzeko asmoa dugu, baita lehen mailako ikasleei batxilergoan Fisika, Kimika, Matematika eta Biologia eman ote dituzten adierazteko inkesta bat egitekoa ere. Zehazki, 2013/14 ikasturteko bigarren lauhilekoan egingo da.

- Maiatzeko/ekaineko ohiko deialdiak eta ekaineko/uztaileko apartekoa amaitutakoan, 2012/13 ikasturteko emaitza akademikoaren txostena osatu zen. Irailean, emaitza horiek irakasleei bidali zitzaizkien, eta 2013ko urriaren 9an, Fakultateko Batzarrean aurkeztu ziren.

- Geologiako 1. mailako "Kimika II" eta "Matematika II eta Estatistika" irakasgaien emaitza akademikoak aztertu ondoren, eta horiekin zerikusia duten eragileekin bilkurak egin ondoren, 2013/14 ikasturtean horiei zegozkien talde magistralak bereizita uztea erabaki zen.

Zenbait graduren (BT, G, IK, M eta K) 4. maila ezartzeko prozesua prestatzea

2012/2013 ikasturtean, zenbait bilera egin genituen titulazioetako koordinatzaileekin eta sailtako zuzendariekin, 2013/14 ikasturtean zenbait graduren laugarren maila ezartzeko prozesua planifikatzeko (Bioteknologia, Geologia, Ingeniaritza Kimikoa, Matematika eta Kimika). Hona hemen landutako gai nagusiak:

- i) Ezarri beharreko mailen ordutegi berriak prestatzea eta lehendik ezarritakoak aldatzea.
- ii) Graduaren, lizentziaturen eta ingeniaritzen arteko irakasgai multzoak aztertzea.
- iii) Hautazko irakasgaiak eskaintzea.
- iv) Eskaintako irakasgaietako irakaskuntza modalitate ezberdinetarako talde kopurua proposatzea.

Segimendu txostenak

2012ko urriaren eta azaroaren artean, graduaren segimendua egiteko bigarren txostenak prestatu ziren, UPV/EHUK eta UNIBASQek adostutako ereduaren arabera eta UNIKUDE tresna erabiliz. Segimendu txostenek honako atal hauek dituzte:

1. Informazio publiko erabilgarria:
 - a. Titulazioari buruz webgunean dagoen informazio orokorra
 - b. Gaiei/Irakasgaiari buruz webgunean dagoen informazioa
 - c. Webgunearen informazio osagarria
 - d. Webgunearen egindako aldaketaren deskribapena
2. Egiaztatutako tituluan egindako aldaketak:
 - a. Titulua egiaztatzeaz arduratu direnak (ANECA/UNIBASQ) egindako gomendioen ondoriozkoak
 - b. Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen planetik ondorioztatutakoak
3. Titulazioaren segimendua egiteko adierazleak:
 - a. Plazaren eskaintzari eta eskaerari loturiko adierazleak
 - b. Irakaskuntzako emaitzen adierazleak
 - c. Mugikortasun adierazleak
 - d. Lan munduan sartzeko emaitzen adierazleak
 - e. Indarguneen eta hobekuntza arloen analisia eta definizioa
4. Titulu bakoitzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema aplikatzearen emaitzak:
 - a. Tituluaren KBBS aplikatzearen emaitzetatik atera daitezkeen ondorioen analisia: indarguneak eta hobekuntza arloak
5. Titulua hobetzeko datorren ikasturterako ekintzen plana

Gradu bakoitzeko Ikasketen Batzordeek Dekanotza Taldearen laguntzarekin egindako 2011/12 ikasturteko Segimendu Txostenak Kalitate Batzordeari aurkeztu zitzaizkion, eta honek onartu egin zituen. Ondoren, AADBren oniritzia jaso zuten, 2013ko apirilaren 18an. UPV/EHUK UNIBASQera bidali zituen, ebalua zitzan. Kudeaketa Txosten honen idazketa prozesuan, zehazki 2013ko urriaren 7an, UNIBASQek Biologiako Graduaren 2011/12 ikasturteko Segimendu Txostenari buruzko bere balorazioa bidali zigun.

Ikasketa planak aldatzea

2. eta 3. tauletan 2012/2013 ikasturtean lizentziaturen eta graduen ikasketa planetan, hurrenez hurren, egindako aldaketak ageri dira. Ikastegiko Batzarrak zein egunetan onartu zituen eta UPV/EHUKo AADBren aldeko txostena noiz jaso zuten ere adierazi da.

2. taula.- 2012/2013 ikasturtean lizentziaturen ikasketa planetan egindako aldaketak.

Lizentziatura	Eskaera	Ikastegiko Batzarraren onarpena	AADBren onarpena
Fisika	"Teknika Esperimentalak II" irakasgaia lauhilekoz aldatzea, graduarekin multzokatzeko.	2013-07-04	2013-09-06
Kimika	Irakasgai hauek lauhilekoz aldatzea, graduarekin multzokatzeko: - Analisi Aplikatua: 2. lauhilekotik 1.era. - Kimika Organometalikoa: 2. lauhilekotik 1.era. - Esperimentazioa Kimika Organikoan	2013-03-21	2013-04-18

Beste jarduketak batzuk

Lizentziaturak graduetara egokitzeko prozesuekin jarraitu da. 2012/2013 ikasturtean, Biologiako Gradua eta Biokimika eta Biologia Molekularreko guztiz ezarri dira (Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa ezarrita zeuden 2010/11 ikasturtetik). Gainerako graduetan, hirugarren mailara arteko irakaskuntza eman da.

Bestalde, ikastegiko lizentziaturak eta ingeniariak kentzen ere jarraitu dugu. Ondorengo ekintzak nabarmen daitezke:

- Desagertutako irakasgaien azterketak: hiru deialdi posibleetako azterketen programazioa (Ikastegiko Batzarrak 2013ko uztailaren 4an onartua). Informazio horren berri eman zen, baita hiru deialdi posibleen artetik ikasleek erabil ditzaketen biak hautatzeko aukeraren berri ere.
- Lizentziaturako zenbait irakasgai lauhilekoz aldatzea, graduarekin beren baliokideekin multzokatu ahal izateko.
- Lizentziaturako eta graduarekin irakasgaiak multzokatzeko.



3. taula.- 2012/13 ikasturtean graduen ikasketa planetan egindako aldaketak.

Gradua	Eskaera	Ikastegiko Batzarraren onarpena	AADBren onarpena
Biologia	26716 Animalien Fisiologiaren Oinarriak irakasgaia ingelesez ematea	2012-12-19	2013-06-13
Biologia	Biologiako GALak modulu bakarra izatea, bi beharrean.	2013-02-06	2013-04-18
Biologia	4. mailako Landare Baskularren Dibertsitatea 2. lauhilekotik 1.era aldatzeko eskaera.	2013-02-06	2013-04-18
Biokimika eta Biologia Molekularra	26729 Sistemen Biologia eta 27801 Animalien Fisiologia irakasgaiak ingelesez emateko eskaera.	2012-12-19	2013-06-13
Bioteknologia	Bioteknologiako memorian aurkitutako akats hauek zuzentzea: Kimika gaia sartzea adarreko oinarriko irakasgai honetan: Oinarriko Metodologia Biokimikoa. Gaitasunak sartzea M07 Hautazkotasuna moduluan.	2013-02-06	2013-02-07
Bioteknologia	26729 Sistemen Biologia eta 27801 Animalien Fisiologia irakasgaiak ingelesez ematea	2012-12-19	2013-06-13
Fisika	"Electrodinámica/Electrodinámica" irakasgaiko euskararen erabilera areagotzea.	2012-12-19	2013-05-16
Fisika	Kanpoko praktikak egitea hautazko kreditu gisa aitortzeko aukera bertan behera uztea.	2012-12-19	
Fisika	"Konputaziorako Sarrera" irakasgaiko irakaskuntza bektorea aldatzea: Magistrala: 20tik 20ra; ikasgelako praktikak: 0tik 6ra; ordenagailuko praktikak: 30etik 24ra; mintegiak: 10etik 10era.	2013-10-03	2012-11-09
Geologia	"Konputaziorako Sarrera" irakasgai partekatuko irakaskuntza bektorea aldatzea: Magistrala: 20tik 20ra; ikasgelako praktikak: 0tik 6ra; ordenagailuko praktikak: 30etik 24ra; mintegiak: 10etik 10era.	2013-10-03	2012-11-09
Ingeniaritza Elektronikoa	"Konputaziorako Sarrera" irakasgai partekatuko irakaskuntza bektorea aldatzea: Magistrala: 20tik 20ra; ikasgelako praktikak: 0tik 6ra; ordenagailuko praktikak: 30etik 24ra; mintegiak: 10etik 10era.	2013-10-03	2012-11-09
Ingeniaritza Kimikoa	"Konputaziorako Sarrera" irakasgai partekatuko irakaskuntza bektorea aldatzea: Magistrala: 20tik 20ra; ikasgelako praktikak: 0tik 6ra; ordenagailuko praktikak: 30etik 24ra; mintegiak: 10etik 10era.	2013-10-03	2012-11-09
Ingeniaritza Kimikoa	Ikasleen GALEko aurrematrikulazio baldintzak aldatzea, honakoa barne hartuta: - Jatorrizko testua: "Gradu Amaierako Lanean (GAL) matrikulatzeko, ikasleek 1., 2. eta 3. mailetako kreditu guztiak gaindituta izan beharko dituzte, edo bestela, graduko 240 kredituak osatzeko gehienez 5 irakasgairen faltan egon beharko dute." - Proposamena: "Ikasleari Gradua amaitzeko 72 kreditu edo gutxiago falta izatea (Gradu Amaierako Lana barne)."	2012-12-19	2013-02-07
Ingeniaritza Kimikoa	Kanpoko Praktikak egiteko aurretiko baldintzak ezartzea: "Gradua amaitzeko gehienez 84 kreditu osatzeke dituzten ikasleek bakarrik izango dute Kanpoko Praktiketako matrikulatzeko aukera".	2013-05-28	2013-06-13
Ingeniaritza Kimikoa	"Ekipoen Diseinu Mekanikoa" irakasgaiko irakaskuntza bektorea aldatzea: magistrala: 40tik 40ra; mintegiak: 10etik 10era; ikasgelako praktikak: 10etik 0ra; ordenagailuko praktikak: 0tik 10era.	2013-05-28	2013-06-13
Matematika	"Konputaziorako Sarrera" irakasgai partekatutako irakaskuntza bektorea aldatzea: magistrala: 20tik 20ra; ikasgelako praktikak: 0tik 6ra; ordenagailuko praktikak: 30etik 24ra; mintegiak: 10etik 10era.	2013-10-03	2012-11-09
Matematika	Irakasgai hauetan ingeleza erabiltzea: 26684 Egitura Aljebraikoak, 26688 Kurben eta Gainazalen Geometria Globala, 26676 Ekuazio Diferentzialen Zenbakizko Ebazpena.	2012-12-19	2013-06-13
Matematika	2013/14 ikasturterako bakarrik. "Kodeak eta Kriptografia" irakasgaia" 1. lauhilekotik 2.era aldatzea.	2013-03-31	2013-04-18
Kimika	Ingelesa erabiltzen hastera 26698 Industria Kimika Analitikoa/Industrial Analytical Chemistry irakasgaian.	2012-12-19	2013-06-13
Kimika	Irakasgai hauetako irakaskuntza bektoreak aldatzea: Dokumentazioa eta Komunikazioa Kimikan: magistrala: 24tik 24ra; mintegiak: 8tik 8ra; ikasgelako praktikak: 8tik 0ra; ordenagailuko praktikak: 20tik 28ra. Materialen Zientzia: magistrala: 40tik 40ra; mintegiak: 0tik 12ra; ikasgelako praktikak: 7tik 8ra; ordenagailuko praktikak: 3tik 0ra; laborategiko praktikak: 10etik 0ra.	2013-05-28	2013-06-13

2.02, *Ikasleak erakartzea*

Prozedura honetan, ZTF-FCTko prestakuntza eskaintza bigarren hezkuntzako ikasleei ezagutzera emateko jardun ildoak zehaztuko ditugu. Ikasleei unibertsitateko ikasketak errazago aukeratzen laguntzea da helburua. Hona hemen jarduera nabarmengarrienak:

- Zientzia Ekinean
- Ate Irekien Jardunaldiak
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) aurkezpena
- Zientzia Olinpiadak
- Unibertsitate Orientaziorako Azokak
- 2013ko Udako Campus Zientifikoa

Zientzia Ekinean

Kimikan, Fisikan, Geologian edo Matematikan interesa duten batxilergoko eta DBHko ikasleentzako jarduerak biltzen ditu. Helburua oro har zientziarekiko eta bereziki aipatutako diziplinekiko interesa indartzea da. Hala, batetik, ikasleak laborategiko lanean prestatzen lagundu nahi da; horretarako, UPV/EHUren ZTF-FCTko irakaskuntza laborategiak beren eskura jartzen dira, zientzia hobeto ulertzeko bide gisa. Horrez gain, jardunaldien bidez zientziak zer alderdi positibo dituen eta gaur egun zer eragin duen azaldu nahi zaie belaunaldi berriei. Bestetik, Zientzia Ekinean programak komunikaziorako bide berria zabaltzen du unibertsitateko irakasleen eta bigarren hezkuntzako artean. Horrek, elkarrizketaren bidez eta ikuspegiak trukaturik, elkar hobeto ezagutzea ahalbidetzen digu eta horrek ziur asko ikasleen prestakuntza hobetzea ekarriko du. 2012/2013 ikasturtean Zientzia Ekinean programako jarduerak honako egutegi honi jarraituz egin ziren:

- Geología en Acción / Geología Bizirik: 2012ko urtarrilaren 25ean eta 2013ko apirilaren 12an.
- Física + Ingeniería Electrónica en Acción / Fisikaz + Ingeniaritza Elektronikoaz Blai: 2013ko urtarrilaren 16tik 22ra.
- Química + Ingeniería Química en Acción / Kimika + Ingeniaritza Kimikoa Bizirik: 2013ko urtarrilaren 7tik 18ra.
- Matematika Tailerra²: 2012ko azaroaren 21etik 2013ko martxoaren 27ra.

Guztira 641 ikaslek parte hartu zuten, honela banaturik:

- Geología en Acción / Geología Bizirik: 66; 7 ikastetxetatik.
- Física + Ingeniería Electrónica en Acción / Fisikaz + Ingeniaritza Elektronikoaz Blai: 148; 36 ikastetxetatik.
- Química + Ingeniería Química en Acción / Kimika + Ingeniaritza Kimikoa Bizirik: 392³ (DBHko 16 ikastetxetatik eta batxilergoko 28 ikastetxetatik).

² Matematika Tailerra larunbatetan izaten da, Bilboko Esperientzia Geletan.

³ Química + Ingeniería Química en Acción / Kimika + Ingeniaritza Kimikoa Bizirik jardueran, batxilergoko 191 ikaslek eta DBHko 201 ikaslek hartu dute parte.

- Matematika Tailerra: 35; 22 ikastetxetatik.

4. taulan ikus daiteke parte hartu zuten ikasleek inkestetan adierazitako balorazio orokorra (1etik 10erako eskalan):

4. taula.- Zientzia Ekinean. Jarduera praktikoen balorazioa: ikasleak.
Iturria: Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza

	Inkestak	Instalazioak	Aurkezpina	Azalpina	Materiala	Denbora	Interesgarria	Erabakia hartzen laguntzen du	Ezagutza areagotzen du	Gomendatzeko modukoa
Geología en Acción / Geología Bizirik	66	8,6	8,8	8,6	8,5	8	7,6	5,6	7,3	6,7
Física + IE en Acción / Fisikaz + IEz Blai	130	8	7,9	8,2	8,4	8,1	8,5	6,2	7	8
Química + IQ en Acción / Kimika + IK Bizirik	172	8,7	9	9	9,1	8,6	9,2	6,5	7,5	8,8
Matematika Tailerra	14	8,8	8,1	7,9	7,7	8,2	8,6	8,1	7,6	8,5

Ate Irekien Jardunaldiak

Martxoaren 11n (Bizkaiko ikastetxeetako ikasleentzat) eta 13an (Arabako eta Gipuzkoako ikastetxeetako ikasleentzat) egin ziren. 2012/13 ikasturtean Ate Irekien Jardunaldietan parte hartzeko izena emateko sistema berri bat ezarri da, web orrialdearen bidezkoa. Hobekuntza horren asmoa, bertaratuko direnen aurreikuspenaren eta benetan bertaratzen direnen arteko aldea murriztea da. Guztira 564 ikasle bertaratu ziren (381 euskaraz eta 183 gaztelaniaz), Dekanotza Taldeen agurra izan zutelarik. Fakultateko langile askok parte hartu zuten, titulazioetako koordinatzaileek antolatuta. ZTF-FCTn izandako informazio saioaren batez besteko balioespina 7,1 puntukoa izan zen (1etik 10erako eskalan). Zalantzak argitzeko moduak 7,3 puntu jaso zituen eta jardunaldi hauek erabakitzeko orduan ematen duten laguntzak 7,2 puntu (1etik 10erako eskalan).

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako aurkezpina (BHI).

Dekanotza Taldeak eta Fakultateko irakasleek ikastegia ezagutarazteko politika aktiboa egiten jarraitu dute. Horretarako, **ikastetxe estrategikoetan** eta hala eskatu zutenetan izan dira. 2012/2013 ikasturtean Fakultateko graduari buruzko informazioa eman zaie Euskal Autonomia Erkidegoko 14 ikastetxetako 415 ikasleri. 5. taulan agertzen da jarduera horrek azken urteotan izan duen bilakaeraren laburpena.

Informazio bisitak eskatzen dituzten ikastetxe estrategikoen datu-base bat prestatzen ari gara eta, bertan, Fakultateko enbaxadore lanetan aritu diren irakasleak adieraziko ditugu.

2012/2013 ikasturtean ondorengoak aritu dira enbaxadore lanetan: Iñigo Egusquiza, Manu Soto, Jose Luis Ayastuy, Isabel Salcedo, Karmele Urtiaga, Ines Arana, Maria Jose San José, Juan R. González Velasco, Ibon Sagastabeitia, Olatz Zuloaga, Efraim Reyes, Andres Aguayo, Osane Oruetxebarria eta Miren Josu Omaetxebarria.

5. taula.- Azken ikasturteetan bisitatutako ikastetxeen eta Fakultatean ematen diren titulazioei buruzko informazioa jaso duen ikasle kopuruaren laburpena.

Ikasturtea	Ikastetxeak	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak	Informatutako ikasleak
2007/08	5	5	100
2008/09	13	9	342
2009/10	13	15	451
2010/11	19	20	470
2011/12	13	12	580
2012/13	14	14	415

Zientzia Olinpiadak

Batxilergoko ikasleak zientzien ikasketan barneratzea eta inplikatzeari dute helburu eta, horrekin batera, gaur egun duten garrantzia nabarmentzea. Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko bost Zientzia Olinpiadak urtarril eta martxo artean egin ziren: Matematika (urtarrilaren 11an), Geologia (urtarrilaren 25ean), Biologia (otsailaren 2an fase teorikoa eta otsailaren 23an praktikoa), Kimika (otsailaren 2an) eta Fisika (martxoaren 1ean). Guztira, bigarren hezkuntzako 87 ikastetxe eta 200 ikasle parte hartu zuten, eta irakasle hauek aritu ziren Olinpiaden koordinatzaile gisa: Arturo Apraiz (Geologiako Olinpiada); Sergio Seoane, Ana Puente eta Beñat Zaldibar (Biologiako Olinpiada); Raul Pérez (Fisikako Olinpiada); Pascual Román (Kimikako Olinpiada); eta Pedro Alegría eta Jesús Gómez Ayala (Matematikako Olinpiada).

Eskerrak emateko ekitaldia maiatzaren 17an izan zen, Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan, eta 200 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten bertan: ikasleak, irakasle prestatzaileak, ikastetxeetako zuzendariak, familiako kideak eta irakasle laguntzaileak. Dekanoa izan zen ekitaldiko buru, Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko errektoreorde Amaia Maseda García eta Zientzia Politikarako zuzendari Miren Begoñe Urrutiak lagunduta. Ekitaldian, Luis Vega irakasleak "El tablero de Galton" hitzaldia eskaini zuen.

Horrez gain, 2013ko apirilaren 4tik 7ra Espainiako XLIX. Matematika Olinpiada egin zen Fakultatean. Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan egindako ongietorri ekitaldi batekin eman zitzaion hasiera eta diplomak entregatzeko ekitaldiarekin amaitu zen, apirilaren 6an, Bizkaia Aretoan (UPV/EHUren Paraninfoa).

Fakultateko Matematika Saileko eta Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa Saileko Pedro Alegría, Eugenio Jesús Gómez Ayala, Carlos Gorria Corres eta Josu Sangroniz Gómez aritu ziren Olinpiadaren koordinatzaile gisa. Guztira, batxilergoko 77 ikasle parte hartu zuten. 36 irabazle egon ziren: urrezko 6 domina, zilarrezko 12 eta brontzezko 18. Urrezko 6 dominak lortu zituzten ikasleek Santa Martan (Kolonbia) egin zen Nazioarteko 54. Matematika Olinpiadan parte hartu zuten parte, 2013ko uztailaren 18tik 28ra. Urrezko 6 dominak lortu zituzten ikasleetatik lauk, Iberoamerikako 28. Matematika Olinpiadan parte hartu zuten parte, Panaman, 2013ko irailaren 20tik 28ra.

Unibertsitate Orientaziorako Azokak (UOA)

Zuzendaritza Taldeak eta Fakultateko irakasle eta ikertzaileek parte-hartze aktiboa izan dute UPV/EHUko Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak hiru campusetan antolatutako azoketan (Arabian urtarrilaren 19an, Gipuzkoan urtarrilaren 26an eta Bizkaian otsailaren 2an). Batxilergoko ikasleak eta haien familiak joan ohi dira jardunaldi horietara. Bertaratu zirenek 10etik 8,94 puntuko batez besteko balorazioa eman zieten asebetetze inkestan. 6. taulan, Fakultateko langileek azken urteotako UOAtan izan duten parte-hartzea ageri da.

Hona hemen parte hartu zuten irakasleen zerrenda: Aitziber Anakabe, Sonia Álvarez, Pedro Pablo Gil, Maren Ortiz, Begoña González Moro, Ana Basaguren, Mercedes Herrera, Mertxe Martínez, Inés Arana, Ana Isabel Puente, Ainhoa Alonso, Amparo Varona, Ana Aguirre, Andres Aguayo, Isabel Salcedo, Joaquín Portilla, José Luis Ayastuy, Luis Angel Ortega, Manu Soto, Xabier Murelaga, José Luis Arrondo, Nerea Otegi. Horiez gain, Dekanotza Taldeak ere hartu zuen parte.

6. taula.- Zuzendaritza Taldeak eta irakasle eta ikertzaileek Unibertsitate Orientaziorako Azoketan izandako parte-hartzearen bilakaera.

Ikasturtea	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak
2007/08	20
2008/09	18
2009/10	22
2010/11	25
2011/12	26
2012/13	31

Beste jarduera batzuk

UPV/EHUK bat egin du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta FECYTEk bultzatzen duten "2013ko Udako Campus Zientifikoak" programaren hirugarren edizioarekin, eta espainiar estatu osoko DBHko 30 ikasle eta batxilergoko 1. mailako beste hainbeste hartu ditu uztailen. Programa horrek ikasle gazteenen artean ikerketa zaletasuna sustatzea du helburu. Bertan, Ministerioak Nazioarteko edo Eskualdeko Bikaintasun Campus izendatutako unibertsitateek hartzen dute parte. Euskampusen Udako Campus Zientifikoak lau prestakuntza programa eskaini ditu eta Fisika, Matematika, Kimika eta Biologiako jakintza arloetan jarri du arreta. Horretarako, ZTF-FCTren laguntza izan du.

Hirugarren edizio honetan, askotariko jarduerai esker, hautatutako ikasleak era atseginean hurbildu ziren gai horietara, ZTF-FCTko irakasle, bekadun eta AZPko langileen eta erdi mailako irakaskuntzako irakasleen bitartez. Honako proiektu hauek gauzatu zituzten:

- "Los mejillones como centinelas de la contaminación: análisis a nivel celular y tisular" (Biologia)
- "Física de alto voltaje: chispas, rayos y pelos de punta" (Fisika)
- "Más que números" (Matematika)
- "La materia solamente se transforma" (Kimika)

2.03, Onarpena eta matrikulazioa

Aurtengo ikasturtean (2013/2014), guztira 603 ikasle **matrikulatu dira** lehenengoz ZTF-FCTn (7. taula). Ikasleen graduakako banaketak ikastegiak azken urteotan egin dituen proposamenek izan duten harrera ona eta arrakasta baieztatzen du; izan ere, ia gradu guztietan lortu da aurreikusitako matrikulazio kopurua eta, zenbaitetan, gainditu ere egin da.

7. taula.- Lehenengo mailan matrikulatutako ikasle berrien bilakaera.

Urtea	Jaiotza urtea	BI	EAE	Biol.	Biok. eta BM	Biotek.	Fis.	Geol.	IE	IK	Mat.	Kim.	Guztira
2002	1984	12.426	22.411	242	-	-	65	33	-	48	24	75	487
2003	1985	11.582	20.970	255	-	-	70	44	-	55	33	87	544
2004	1986	10.981	20.094	193	-	-	47	59	-	65	44	100	508
2005	1987	10.148	18.593	198	-	-	60	43	-	34	44	95	474
2006	1988	9.724	18.021	144	-	-	59	35	-	31	40	92	401
2007	1989	9.024	17.024	178	-	-	61	18	-	29	43	77	406
2008	1990	8.724	16.361	169	-	-	47	30	-	32	42	56	376
2009	1991	8.557	16.228	178	-	-	38	35	-	17	68	58	394
2010	1992	8.587	16.250	83	41	38	83	43	49	75	80	78	570
2011	1993	8.203	15.801	111	52	58	85	52	36	59	78	80	601
2012	1994	8.792	17.067	98	43	40	82	46	55	78	78	77	597
2013	1995	8.526	16.750	102	47	42	83	46	47	79	79	78	603

- 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa, Bizkaiari (BI) eta Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokienez. Iturria: EUSTAT (www.eustat.es)
- Ikasle berrien matrikulazio datuak 2013ko azaroaren 18ra bitartean. Iturria: ARTUS.

Bestalde, "ikasle berrien" artean bigarren ikasketak egiteko sartzen diren edo beste titulazio batetik igaro diren ikasleak (aurrekoa utzi egin dutelako edo biak batera egingo dituztelako) kontuan hartzen baditugu, 2013/14 ikasturteko ikasle berrien kopurua 657koa da.

2012ko irailaren 7an, Fakultateko Paraninfoan, ikastegian matrikulatutako ikasle berrientzako ongietorri ekitaldi bat egin zen. Deialdia egin zitzaien ikasleen % 95ek hartu zuten parte ekitaldian eta lehen mailako Irakaskuntza Gida entregatu zieten. Titulazio bakoitzeko koordinatzaileak eta lehen mailako koordinatzaileak ere izan ziren bertan, baita beren borondatez bertaratutako goragoko mailetakoko irakasle eta ikasleak ere. Dekanoak agurra eta Fakultatearen aurkezpena egin eta zeinbait gairi buruzko azalpenak eta informazioa eman ondoren, ikastegiko instalazioak eta zerbitzuak bisitatu zituzten, zegozkien koordinatzaileekin batera eta ongietorri ekitaldia ahalik eta ondoen garatzeko laguntza eman zuten irakasle eta ikertzaileen laguntzarekin.

2.04, Programazioa

Gauzatzen diren jardueren artean, ordutegiak eta Gradu Amaierako Lanak gauzatzeko eta aldatzeko prozesuarekin zerikusia dutenak nabarmendu behar dira.

"ZTF-FCTko ordutegi jasangarriak" hobekuntza taldea

Dekanotza Taldetik, eta UPV/EHUren Kalitate Katedraren babesarekin, "ZTF-FCTko ordutegi jasangarriak" izeneko Hobekuntza Talde bat sustatu da (3.2 HE). Hasiera batean,

“Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakaskuntza ordutegiak sortzeko prozeduraren berrikuspena. Eredu jasangarri baten proposamena” egiteko sortu zen. Taldekideak ordutegiak osatzeko prozesuan parte hartu duten mailako edo graduako koordinatzaileak dira edo izan dira. Hobekuntza taldeko kideak:

1. Ibon Sagastabeitia (Hobekuntza Taldeko koordinatzailea eta Irakaskuntzare Plangintzako dekanoa)
2. Amaia Orbea (Biologia, 1. mailako koordinatzaile ohia)
3. Iñigo Etxebarria (Fisika, 4. mailako koordinatzaile ohia)
4. Amparo Varona (Ingeniaritza Elektronikoa, 1. mailako koordinatzailea)
5. Maite Herrero (Kimika, titulazioko koordinatzailea eta 1. mailako koordinatzaile ohia)
6. Fernando Varona (Ingeniaritza Kimikoa, 1. mailako koordinatzailea)
7. Julia Cuevas (Geologia, 2. mailako koordinatzailea)
8. Ana Valle (Matematika, 2. koordinatzailea)
9. Jesús M^a Arizmendi (Biokimika eta Biologia Molekularra, 2. mailako koordinatzailea)
10. Fernando Hernando (Bioteknologia, 2. koordinatzailea)
11. Mikel García (3. mailako ikaslea eta Fisikako GIBko kidea)
12. Begoña Antón (Ikastegiko teknikaria)

Gloria Areitio irakasleak UPV/EHuren Kalitate Katedrako eragile gisa hartu zuen parte.

Talde hau osatzeko arrazoia ikasturte bakoitzean Fakultateko graduetako irakaskuntza ordutegiak osatzeko eta egokitzeko prozesua hobetzeko dagoen beharra izan da. Graduak ezarpenaren lehen ikasturteetan, Dekanotza Taldeak beharrezkotzat jo du ikasgelen eta ordutegien kudeaketan parte hartzen duten pertsona guztien (ikasleak, irakasleak eta AZPko langileak) lana erraztea ahalbidetuko duten arau batzuk zehaztea.

2012/13 ikasturtean, proposatutako helburu gehienak lortzea ahalbidetu zuten lau bilkura egin ziren. Horiei dagokien txostena 2013/14 ikasturtean aurkeztuko da Ikastegiko Batzarrean.

Gradu Amaierako Lanei buruzko informazio aurkezpenak

2013/14 ikasturtean gradu gehienetan GALak ezarri direla ikusita, ikasleekin horien deskribapenari eta helburuei buruzko informazio hitzaldiak egin dira, baita GALaren funtsesko faseei buruzkoak ere.

Lehen hitzaldia 2013ko maiatzaren 8an egin zen, Fakultateko Paraninfoan, eta gradu guztietako ikasleak bildu ziren bertan. Bi ataletan bereizi zen. Lehenengoa Titulazioen Garapeneko dekanordeak eman zuen eta, bertan, GALaren kontzeptua definitu eta izena ematearen eta matrikulatzearen arteko desberdintasuna azaldu zuen. Horrez gain, 2013/14 ikasturterako aurretiko izen-ematea egiteko, izena emateko, lanak esleitzeko, matrikulatzeko eta defentsa egiteko datak iragarri zituen, arreta berezia eskainiz aurrez izena emateko eta behin betiko izena emateko faseei. Bigarren atalean, ikasleak graduaren arabera bereizi ziren eta bilkurak egin ziren GALEko koordinatzaile bakoitzarekin, titulazio bakoitzari dagozkion alderdi zehatzagoak azalduz.

2.05, Eskolak ematea

Ikastegian irakaskuntza-ikasketari erantzuteko gauzatzen diren jardueren artean, tutoretza eta ikasleentzako orientazioa daude. Horien helburua ikasleei beren unibertsitate ikasketetan interesgarria gerta dakiekeen informazioa ematea da.

Tutorearen figura 2001ean sortu zen Fakultatean. Hasiera batean, titulazio hauetan ezarri zen: Fisika, Geologia, Ingeniaritza Elektronikoa eta Matematika. 2002/03 ikasturtean Kimika titulazioan ere sartu zen, eta 2003/04 Ingeniaritza Kimikoan.

Gaur egun, titulazio guztiek dute Tutoretza Plan bat (TP) eta, horren bidez, urtero tutore bat esleitzen zaie ikasle berriei. Prozesu hau ikasturtea hasitakoan egiten da eta titulazioko TPren koordinatzaileak kudeatzen du.

ZTF-FCTn irakasgaiko, mailako eta graduako koordinatzaileen figurak ere ezarrita daude. Horien izenak ikastegiaren web orrialdean daude argitaratuta (4.5 HE). Figura horiek egiten duten lanak balio handia du, ez erantzuten dituzten kontsulten kopuruagatik bakarrik, baita, beren ezagutza maila altua dela eta, ematen duten informazioaren kalitateagatik ere.

Fakultateko Ikasleentzako Arreta Zerbitzua (ZTFIAZ) ikasleen orientaziorako funtsezko pieza da, eta, kontsulta gehienek truke akademikoari eta enpresetako praktikei erreferentzia egiten badiete ere, zerbitzuak eskainitako ikasketekin zerikusia duen edozein gairi erantzuten dio.

2.06, Ebaluazioa eta graduazioa

Prozedura honek, beste zenbait ekintzen artean, Gradu Amaierako Lanarekin zerikusia dutenak barne hartzen ditu. Gradu Amaierako Lana gainditzean, ikaslea graduatu egiten da, beraz, bertan eskuratu beharreko gaitasun garrantzitsuak ebaluatzen dira.

Gradu Amaierako Lanari buruzko araudia

2010/11 eta 2011/12 ikasturteetan, gradu batzuetan horietara egokitutako ikasleen Gradu Amaierako Lana ezarri zenean, zenbait arazo ikusi ziren GALa truke akademikoko programen barnean egiten zuten ikasleekin. Beraz, egoera normalizatzeko eta indarreko araudia aldatzeko beharra ikusi zen. Besteak beste, GALEi buruzko puntu bat sartu zen truke akademikoko programetan (2013ko maiatzaren 28ko Ikastegiko Batzarrean onartutako araudiaren 9. artikulua).

GALa aurreko ikasturteetan ezarri duten graduen kasuan izan ezik (Fisika, Ingeniaritza Elektronikoa, Biologia eta Biokimika eta Biologia Molekularra), gainerakoek 2013/14 ikasturtean egin beharko dute. Beraz, gradu bakoitzerako GALari buruzko gidak eta araudiak egiteko beharra ikusi zen. Graduako Ikasketen Batzorde bakoitzeko ordezkari batek eta Titulazioen Garapeneko dekanordeak osatutako talde bat bildu eta gai hori landu zuen. Horrez gain, Kalitate eta Berrikuntzako dekanordearen eta Asier Aranzabal irakaslearen babesa ere izan zuten, azken horrek esperientzia handia baitu ebaluazio taulak egiten. Azkenik, lantaldeak titulazio bakoitzerako araudiak zehaztu zituen. Araudi bakoitzak honako atal hauek barne hartzen ditu:

- Deskribapena eta helburuak
- Gaitasun orokorrak eta ikasketaren emaitzak
- GALak barne hartzen dituen jarduerak
- GAL motak
- GAL baten luzera eta egitura eredua
- GALaren oinarritzko faseak

Araudi guztiek GALEko zuzendariak bete beharreko txosten eredu bat barne hartzen dute, baita idatzizko memoria eta defentsa ebaluatzeko irizpideak ere. Alderdi horiek guztiak 2013ko maiatzaren 28ko Ikastegiko Batzarrean onartu ziren.

Horrez gain, GAUR eta ADDI plataformak erabiltzeko eskuliburuak egin ziren, irakasleentzat eta ikasleentzat. Bestalde, GALaren oinarritzko faseak biltzen dituzten gida azkar batzuk ere egin ziren.

GALari buruzko informazio guztia ikastegiaren web orrialdeko atal batean dago bilduta: www.ztf-fct.org > Gradu Amaierako Lana.

Taldean egindako lana (bai ikastegiko GALaren araudia aldatzeko bai gradu bakoitzari dagozkion araudiak egiteko) "UPV/EHUko gradu amaierako lanari buruzko jardunaldian" aurkeztu zen. Jardunaldi hori SAE/HELAZek antolatu zuen, 2013ko ekainaren 12an egindako Unibertsitateko Irakasleen Prestakuntzarako Programaren barnean. Donostiako Kimika Fakultateko dekanok gonbidapena egin zion Titulazioen Garapeneko dekanordeari, lan hori bere ikastegian aurkez zezan, 2013ko ekainaren 24an.

Deialdia aurreratzeari buruzko araudia

UPV/EHUko araudiaren arabera, gradua amaitzeko gehienez 30 ECTS falta zaizkien ikasleei deialdia aurrera dakieke (kreditu horiek guztiak aurreratu ahal izango dira). Dena den, araudi honek ez du balio baldin eta ikasle batek, azken mailan egonda, lehen lauhilekoko irakasgai bat gainditu gabe eduki eta uztaileko deialdian beren GALa defendatu nahi izango balu; izan ere, GALa uztaileko deialdian defendatzeko, nahitaezkoa da gainerako irakasgaiak ohiko deialdian gainditzea. Beraz, UPV/EHUko araudia egokitu egin zen, aipatutako kasuak bezalakoak kontuan hartzeko. Hala, ZTF-FCTko deialdiak aurreratzeko araudiak honela zehazten du:

"Karrera amaierako aparteko azterketa egiteko eskaria egin ahal izango dute ikasketak amaitzeko gehienez ere 40 kreditu falta dutenek. Kreditu horietatik gehienez 30 kreditu aurrera daitezke". Araudia 2013ko urriaren 2ko Ikastegiko Batzarrean onartu zen.

Amaitzeko, 2012/13 ikasturtean, Konpentsazio Ebaluaziorako Epaimahaiak guztira 22 eskaera jaso zituen (urriko, martxoko eta uztaileko deialdietan), eta horietako zazpiren aldeko ebazpena egin zuen. Gainerakoetatik, bostek Epaimahai Zentralera jo zuten.

2.07, Truke akademikoa

ZTF-FCTko ikasleek **truke akademikoko programekiko** duten interesak bere horretan jarraitzen du. Eskaera gehien izaten dituen programa SÓCRATES-ERASMUS da oraindik ere (aurreko ikasturtean 42 ikaslek hartu dute parte bertan). 5 ikaslek hartu dute parte Beste Norakoak programan eta beste 5ek plaza bat lortu dute Austingo Unibertsitatean (Texas).

Azken kasu hori oso esanguratsua da, gure ikasleek nazioartean lehiatu behar izaten baitute plaza horiek lortzeko. Horrez gain, 9 ikaslek Latinoamerikan egonaldiak egin dituzte, UPV/EHU-AL programaren barnean. Hasiera batean programa horren barnean 12 plaza eman ziren, baina Txileko unibertsitatearekin izandako arazoak zirela medio, hiru ikaslek beren plazei uko egitea erabaki zuten. Beraz, ikasturte honetako programa honetako parte-hartze maila aurreko ikasturtetakoaren antzekoa izan da.

8. taulan, azken urteotan Fakultatean izandako ikasle trukeen bilakaera ageri da. Atzeritik 38 ikasle etorri dira: 13 Erasmus programarekin, 1 Italiatik (Erasmusetik kanpo), 10 Latinoamerikatik (AL), 5 SICUE programarekin eta 9 Mugarik Gabeko Zientzia programarekin.

9. taulan SÓCRATES-ERASMUS truke programetan parte hartu duten irakasle eta ikertzaile kopurua ageri da; eskolak eman dituzte gure ikastegiak bi aldeko hitzarmenak eginak dituen Europako hainbat unibertsitatetan. 10. taulan, 2012/13 ikasturtean truke programetan parte hartu duten ikasleen parte-hartzea ikus daiteke, programen, graduen eta lizentziaturen arabera banatuta.

8. taula.- ZTF-FCTren bi norabidetako truke akademikoen bilakaera, mugikortasun programen arabera sailkatuta. Iturria: ZTFIAZ

Programa	2007/08		2008/09		2009/10		2010/11		2011/12		2012/13	
	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.	ZTF	Kanp.
SICUE	14	4	14	10	20	8	28	2	20	3	3	5
SÓCRATES-ERASMUS	43	10	43	15	52	18	46	13	93	17	42	13
TASSEP	1	0	1	0	2	0	3	1	1	1	4	0
Latinoamerika eta Beste Norakoak	2	0	3	2	5	0	6	1	9	3	14	10
Guztira	60	14	61	27	79	26	83	17	123	24	63	28

9. taula.- Azken urteotan mugikortasun programetan parte hartu duten ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileak.

Eskaera urtea	Gauzatze urtea	Irakasle eta ikertzaile kop.	AZPko langile kop.
2008/09	2009/10	10	0
2009/10	2010/11	10	0
2010/11	2011/12	9	1
2011/12	2012/13	7	1
2012/13	2013/14	3	1

10. taula.- 2012/13 ikasturtean truke programetan parte hartu duten ikasleen banaketa, programen, graduen eta lizentziaturen arabera. Iturria: ZTFIAZ.

Graduak	BIOG	BKBMG	BTG	FISG	GEOG	IEG	IKG	MATG	KIMG	Guztira
Erasmus	4	6	4	4	5	1	1	5	3	33
AL	1	4	2				1			8
BN		3					2			5
Tx	2						1	1		4
Sicue				1				1		2
Graduak guztira	7	13	6	5	5	1	4	7	3	52
Lizentziaturak	BIOL	BKL		FISL	GEOL	IE	IK	MATL	KIML	Guztira
Erasmus	2				1			1	5	9
AL	1									1
OD										
Tx										
Sicue					1					1
Liz./ing. Guztira	3				2			1	5	11
ZTF-FCT guztira	63									

2012/13 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten ikaslen artean, 77k truke akademikoko programaren batean hartu dute parte beren ikasketek iraun duten bitartean (horietako 55ek ERASMUS programan).

UPV/EHUK Casa Italia kultura elkartearekin sinatutako hitzarmenari jarraituz, Italiako bizimoduari eta baliabide akademikoei buruzko informazio hitzaldiak egin dira, herrialde horretan ikasteko hautatutako ikasleen egonaldia planifikatzeko. Horrez gain, italiera ikastaroak eman zaizkie ikasleei eta Fakultateko langileei.

Mugarik Gabeko Zientzia programaren esparruan, Fakultateak hitzeman zuen Brasilgo bederatzi ikasle hartuko zituela, bertan hautatutakoak eta bertako beka batekin, Bioteknologiako, Ingeniaritza Elektronikoko eta Matematikako graduetako ikasgaiak egin zitzaten. Zenbait kasutan, ikasle horiek aurretik egindako ikasketen maila ikusita, dagozkion lizentziaturetako goragoko mailetan sartzea adostu da.

Mugarik Gabeko Zientzia ikasleak trukatzeko programa berritzaile bat da, Euskal Herriko Unibertsitateak lehen aldiz 2011/2012 ikasturtean martxan jarritakoa, horretarako gonbidapena jaso ostean. Aipatu ikasleak ikastegian daude orain eta aukeratutako ikasketak egiten ari dira.

2.08, Kanpoko praktikak

Kanpoko praktikak ZTFIAZk kudeatzen ditu, Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordearen ardurapean. Aurreko ikasturteetan bezala, 2012/13 ikasturtean Fakultateak Praktiges tresna erabiltzen jarraitu du, ikasleen kanpoko praktikak kudeatzeko. Tresna hau GAUR kudeaketa sistemarekin koordinatuta dago.

Guztira 101 ikaslek egin dituzte praktikak enpresetan, UPV/EHUko antolakuntza unitateetan eta beste erakunde batzuetan, hezkuntza lankidetzarako hitzarmenen (HLH) bitartez. Guztira 103 hitzarmen sinatu dira.

1.- Enpresek eskainitako praktikak	133
2.- Enpresa aktiboak	230 ⁽⁴⁾
3.- Egindako praktikak	101
4.- Praktikak egin diren enpresak	64
5.- Ikasle eskatzaileak (baliozkotuak)	808 ⁽⁵⁾
6.- Praktikak egin dituzten ikasleak	101
7.- Ikastegiko tutoreak	73
8.- Laguntza poltsaren batezbestekoa	Hilean 160 €
9.- Praktiken batez besteko iraupena (orduak)	263 ordu

Hau da titulazioen araberrako banaketa: Biologiako Lizentziatura (28), Biologiako Gradua (12), Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua (8), Fisikako Gradua (4), Geologiako Lizentziatura (4), Ingeniaritza Kimikoa (7), Ingeniaritza Kimikoko Gradua (1), Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (1), Matematikako Lizentziatura (8), Kimikako Gradua (1), Kimikako Lizentziatura (20), Bioteknologiako Gradua (4), Masterrak (5).

11. taulan ZTF-FCTko ikasleen kanpoko praktikei buruzko beste datu batzuk ikus daitezke.

11. taula. - Azken ikasturteetan egindako HLH kopuruaren bilakaera. Iturria: GAUR eta ARTUS (2013-11-07).

Ikasturtea	Praktikak eskatu dituzten ikasleen kop.	Eskainitako HLH kop.	Praktiketan dauden ikasleen kop.	Ikasketak amaitu dituztenen kop.	HLH kop. / Ikasketak amaitu dituztenen kop.
2002/03	67	165	147	585	0,25
2003/04	297	178	156	530	0,29
2004/05	281	182	157	464	0,34
2005/06	295	209	175	494	0,35
2006/07	262	199	169	420	0,40
2007/08	285	218	179	363	0,49
2008/09	234	140	126	327	0,39
2009/10	249	83	82	296	0,28
2010/11	⁽⁶⁾	78	67	287	0,23
2011/12	520 ⁽⁷⁾	101	73	325	0,22
2012/13	808	134	101	283	0,36

⁴ Azken hiru ikasturteetan ikastegiarekin HLHren bat adostu dutenak.

⁵ Kanpoko praktikak egiteko baldintzak betetzen dituzten ikasleen % 62 (kredituen % 50 gaindituta izatea).

⁶ 2010/2011 ikasturtetik aurrera, baldintzak betetzen dituzten ikasleek (titulaziorako kredituen % 50 gainditu izatea) edozein unetan eska dezakete GAUR aplikazioaren bidez eskainitako praktikak egitea.

⁷ Zenbaki hau praktikak egin ahal izateko baldintzak betetzen dituzten eta inoiz GAUReko praktiken moduluan sartu diren ikasleen kopurua da. Ez du adierazten noizbait praktikak egiteko eskaera egin dutenik.

2012/2013 ikasturtean lau ikaslek "Becas SANTANDER CRUE CEPYME. Prácticas en Empresa" programako bekak jaso dituzte. Hau da praktika horien profila:

1. *Modelizazioa eta Ikerketa Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Masterreko* ikasle bat Zylk.net S.L. enpresan.
2. *Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangaria Masterreko* ikasle bat IK4-Ikerlan enpresan.
3. Ingeniaritza Kimikoko ikasle bat EWBI FM España. Bizkaia Energía enpresan.
4. Bioteknologiako Graduako ikasle bat Noray Bioinformatics S.L. enpresan.

Ingeniaritza Kimikoko Graduako Curriculumeko Kanpoko Praktiken Araudia

2012ko azaroaren 12ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, UPV/EHUren curriculumetik kanpoko eta curriculumeko kanpo praktiken araudia dago ezarrita. Beren ikasketa planetan curriculum praktikak barne hartzen dituzten graduen kasuan (esaterako, Ingeniaritza Kimikoko Gradua), UPV/EHUko araudiak beste araudi berezi bat egin behar dela ezartzen du.

Beraz, 2013. urtean, Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordeak eta Titulazioen Garapeneko dekanordeak, Ingeniaritza Kimikoko Graduako Ikasketa Batzordearekin batera, UPV/EHUko oinarritzko araudia egokitu zuten Ingeniaritza Kimikoko Gradura. 2013ko maiatzaren 28ko Ikastegiko Batzarrean onartu zuten.

Araudi berria eta aurrez izena emateko eranskina ikastegiaren web orrialdean aurki daitezke: www.ztf-fct.org > Araudia.

2.09, Prestakuntza osagarria

2012/13 ikasturtean, Landareen Biologia eta Ekologia Sailak "Functional traits in ecology" izeneko prestakuntza osagarriko ikastaroa eskaini du. 2013ko otsailaren 6ko Fakultateko Batzarrean onartu zuten.

Ikastegiak sustatuta eta GIBetako koordinatzaileek hala eskatuta, guztira lehen mailako 513 ikasle⁸ (Biologiako Gradua, Biokimika eta Biologia Molekularra, Ingeniaritza Kimikoa, Matematika eta Kimika) hartu dute parte Leioako Campuseko Bibliotekak, Fakultateak hala eskatuta, antolatutako "Introducción a los servicios de Biblioteca" ikastaroan (4.2 HE).

2.10, Orientazio profesionala

Gure ikasleen lan munduratzeari areagotzera bideratutako jardueren artean, 2013ko otsailaren 13an Enpresa eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroen VIII. Jardunaldiak egin ziren.

⁸ 256 gaztelaniaz eta 257 euskaraz

100 ikasle bertaratu ziren eta honako 20 enpresa hauek hartu zuten parte bertan: Vacunek, OWL, Bial-Aristegui, GAIKER-IK4 Research Alliance, Ineustar, Zientziaren Industriaren Espainiako Elkarte, GAIA-Cluster, EMS2, ZIV, Azti-Tecnalia, Tecnalia, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea, EUSKALTEL, Geologoen Elkargo Ofiziala, EEE-Energiaren Euskal Erakundea, SAIATEK, AGC Consultoría e Ingeniería Medioambiental, Maier, Vidrala, Graphenea Nanomaterials eta Euskal Herriko Kimikarien Elkargo Ofiziala. Ikasleen balorazio orokorra 7,6 puntuakoa izan zen (1etik 10erako eskala batean).

2.11, Gorabeherak, erreklamazioak eta iradokizunak

Idazkaritza Akademikoak ikastegian erabilgarri dauden bide desberdinetatik (webeko iradokizunen buzoia eta iradokizunen buzoi fisikoa) jasotako iradokizunen, kexen eta kontsulten kopurua hau izan zen: 14 paperean eta 47 web orrialdeko buzoian.

Bestalde, Ikasleen eta Nazioarteko Harremanen Dekanordetzari ebaluazio prozesuarekin lotutako 2 erreklamazio aurkeztu zaizkio. Lehenengoa Fisikako Graduko bigarren mailako ikasleek aurkeztu zuten, eta behar bezala konpondu zen. Bigarrena Ingeniaritza Kimikoko Graduko lehen mailako ikasleek aurkeztu zuten; beren gustuko erantzunik jaso ez zutenez, erreklamazio bat aurkeztu zuten hurrengo instantzian.

Horrez gain, bai Ikastegiko Batzarrean bai sailetan hainbat iradokizun egiten dira, eta ahal den heinean erantzuten dira. Era berean, instalazioekin eta ikastegiko segurtasunarekin lotura duten gertakariak dagokien tratamendua jasotzen dute.

2.12, Titulua desagerraraztea

2010/11 ikasturtean hasiera eman zitzaion ZTF-FCTko lizentziaturak eta ingeniaritzak desagerrarazteko prozesuari. 2012/13 ikasturtea aaitzean, maila batzuk guztiz desagertuta gelditu ziren:

1. Biologiako, Fisikako, Geologiako, Matematikako, Kimikako eta Ingeniaritza Kimikoko lizentziaturetako bigarren mailak.
2. Biokimikako eta Ingeniaritza Elektronikoko lizentziaturako lehen maila (2. zikloko titulazioak).

Azken bi kasuetan, 2012/13 ikasturtean ez zen irakaskuntzarik eman. Azkenean, Ingurumen Zientzietako lizentziatura 2012/13 ikasturtearen amaieran desagertu zen.

3. prozesua. Graduondokoa eta ikerketa

Ikastegirako funtsezko prozesu bat da, 2. prozesua bezala (Gradua). Prozesu honen helburua masterrak, doktorego programak eta Fakultatean egiten den ikerketa lana bultzatzea da, prestakuntza eskaintza hedatuz, jarduera horiek gauzatzeko bitartekoak jarritz eta ikerketa lanaren emaitzak zabalduz.



Masterrak eta doktoregoa

Masterretako arduradun akademikoak arduratzen dira masterrei buruzko informazioa ZTF-FCTko ikasleen artean zabaltzeaz. Txosten hau amaitzean, Fakultatean honako master eta doktorego programak ematen dira:

Masterrak

INGURUGIROA ETA BALIABIDE MATERIALAK

- Ingurugiroaren Agrobiologia (unibertsitate artekoa)
- Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia (nagusiki ingelesez)
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza
- *Marine Environment and Resources* (nazioartekoa, ingelesez)

MATEMATIKA

- Matematikako Ikerketaren Hastapenak (unibertsitate artekoa)
- Modelizazioa eta Ikerketa Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa (unibertsitate artekoa)

FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Zientzia eta Teknologia Kuantikoak (nagusiki ingelesez)
- Materialen Fisika eta Teknologia
- Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan (QUIMILÁSER) (unibertsitate artekoa)
- Material Berriak (unibertsitate artekoa)
- Kimika Sintetiko eta Industrialak (unibertsitate artekoa)

BIOMEDIKUNTZA, BIZI-KALITATEA ETA OSASUNA

- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza (unibertsitate artekoa)

INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria

Doktorego programak

INGURUGIROA ETA BALIABIDE NATURALAK

- Ingurugiroaren Agrobiologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)
- Marine Environment and Resources (Bikaintasuneranzko Aipamena)

MATEMATIKA

- Matematika (Bikaintasuneranzko Aipamenaren aldeko ebaluazioa du)

FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Zientzia eta Teknologia Kuantikoak
- Materialen Zientzia eta Teknologia
- Materialen Fisika eta Teknologia (Bikaintasuneranzko Aipamena)
- Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan (QUIMILÁSER)
- Kimika Sintetiko eta Industrialak (Bikaintasuneranzko Aipamena)

BIOMEDIKUNTZA, BIZI-KALITATEA ETA OSASUNA


- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza

INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria (Bikaintasuneranzko Aipamena)

Gratuondoko ikasketen eskaintzaren barnean, Fakultatean honako berezko titulazio hau ematen da: "Ingurumena eta Iraunkortasuna" (30 kreditu).

2012/13 ikasturtean, Fakultatean guztira 83 doktorego tesi defendatu ziren, horietako 32 nazioarteko tesi gisa, eta 3 euskaraz egin dira erabat. Datuek defendatutako nazioarteko tesien kopurua asko areagotu dela erakusten dute (3. irudia).



3. irudia.- Azken ikasturte akademikoetan defendatutako doktorego tesien kopuruaren bilakaera.
Iturria: Graduondokoaren Unitatea eta UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskola.

Ikerketa

Jarraian Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emandako datuak ikus daitezke, ikastegiaren 2012ko ekoizpen zientifiko eta teknologikoaren garrantzia agerian uzten dutenak:

- Ikastegiko irakasle eta ikertzaileek egindako argitalpenen kopurua 585ekoa izan da, 3,446ko inpaktu indizearekin.
- Ikastegiko irakasle eta ikertzaileen parte-hartzea duten ikerketa proiektu aktiboak 517 dira.
- Eusko Jaurlaritzak 53 ikerketa talderi eman zizkien laguntzak 2011ko eta 2012ko deialdietan.
- Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak (MINECO) fakultateko kideak buru dituzten 31 proiektu berri onartu ditu 2012ko deialdian.
- 8 azpiegitura proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak.
- Ikastegiko irakasle eta ikertzaileek 36 mugikortasun programatan hartu dute parte.
- Eusko Jaurlaritzak finantzatutako 5 diru-laguntza jaso ditugu, biltzarrak antolatzeko.
- 13 ekintza berezi onartu dizkigute.
- OTRik guztira 107 ikerketa proiektu/kontratu izapidetu ditu; horietatik 74 amaitu dira eta 33 gauzatze prozesuan daude.
- Fakultateko kideren bat erregistratuta duten patenteen kopurua 12. taulan ikus daiteke.

12. taula.- 2012. urtean kudeatutako patenteak. Iturria: Ikerketaren arloko Errektoreordetza.

Patente mota	2012. urtea
Espainiarra	6
Europarra	1
AEBkoa	4
PCT (nazioartekoa, "Patent Cooperation Treaty")	4
Guztira	15

Zabalduz Programaren babesean, 9 doktorego tesia egiten ari dira Fakultatean enpresa desberdinekin batera, UPV/EHU osoan 37 izanik Programa honen barruan emandako laguntza.

2012-2013 aldian, Euskoiker Fundazioak Zientzia eta Teknologia Fakultateko sail desberdinetako ikertzaileak buru zituzten hainbat ikerketa proiektu kudeatu ditu. Proiektu horien finantziazio publiko eta pribatua 350.000 eurokoa da guztira.

Euskoiker Fundazioak Fakultateko ikertzaileek gauzatzeko kudeatutako aholkularitza teknikoaren kontratazioari dagokionez, horien zenbatekoa 12.000 eurokoa izan da aipatutako aldian. Kasu guztietan, enkarguak sektore pribatutik egindakoak izan dira.

Ikastegiko irakasleei esleitutako laguntza teknikorako zerbitzuen kontratazioari dagokionez (esparru publikotik nahiz pribatutik egindakoa), guztizko zenbatekoa 17.890 eurokoa izan da aipatutako aldian.

Laburbilduz, Euskoiker Fundazioak Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasleen enkarguz gauzatutako kudeaketa ekonomikoaren zenbatekoa 379.890 eurokoa izan zen 2012-2013 aldirako. Zenbateko horren helburua ikerketa, aholkularitza eta laguntza teknikoko jarduerak gauzatzea izan zen (Iturria: Euskoiker Fundazioa).

Fakultateak, anfitrioi gisa, beharrezko laguntza logistikoa eta giza baliabideak eman ditu bertan egindako ekitaldi zientifiko guztietan. Horietan guztietan, Fakultateko dekanoa egon da beti zegokion inaugurazio ekitaldian. Hauek izan dira 2012/13 ikasturte akademikoan egindako ekitaldi zientifikoak:

- Bioteknologiaren Espainiako Elkartearen (SEBiot) BIOTEC2012 biltzar zientifikoa. "Satélite" jardunaldia. Biospain 2012 biltzarraren inaugurazioa Fakultateko Paraninfoan, 2012ko irailaren 18an.
- Workshop on Quantum Simulations, Fakultateko Paraninfoan, 2012ko irailaren 22an.
- INEUSTARen (Zientziaren Industriaren Espainiako Elkartea) aurkezpen jardunaldia, Fakultateko Paraninfoan, 2012ko azaroaren 21ean.
- V. BIOFORO jardunaldia, Fakultateko gradu aretoan, 2012ko abenduaren 19an.
- EUSKOIKER 2012 ikerketa sariaren entrega ekitaldia (Fakultateko irakasle Juan Ramón González Velascori), Bizkaia Aretoan, 2013ko urtarrilaren 25ean.
- Ikerketaren Transferentziari eta Merkaturatzeari buruzko Jardunaldiaren aurkezpen ekitaldia, Fakultateko Paraninfoan, 2013ko martxoaren 13an.
- María Vallet irakaslea Honoris Causa doktore izendatzeko ekitaldi ospetsua (Fakultateak proposatuta), Bizkaian Aretoan, 2013ko martxoaren 15ean.



- Kimika Organikoa II Sailak antolatutako *UFI-QOSYC: Métodos y Estrategias en Síntesis II* workshop-a, 2013ko apirilaren 26an.
- BERC BCMaterials-eko antolatutako *One Day Workshop: New Materials for a Better Life* ekitaldia, Fakultateko Paraninfoan, 2013ko maiatzaren 9an.
- Ikerbasque-en aurkezpen ekitaldia, Fakultateko Paraninfoan, 2013ko maiatzaren 20an.
- Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasle Luis Vegari (analisi matematikoko katedraduna) 2012ko ikerketa arloko Euskadi Saria entregatzeko ekitaldia, 2013ko ekainaren 11n.
- Antropologia Fisikoaren Espainiako Elkartearen Nazioarteko XVIII. Biltzarraren, "Una mirada al futuro" izenekoaren, inaugurazio ekitaldia, Bizkaia Aretoan, 2013ko ekainaren 19an.


4. prozesua. Giza baliabideak

Prozesu hau Fakultateko langileekin zerikusia duten hainbat alderdi kudeatzeaz arduratzen da. Honako prozedura hauek barne hartzen ditu:

4.1, Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak

4.2, Prestakuntza

4.3, Inplikazioa, sustapena eta aintzatespena



4.1, Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak

Irakasleen kudeaketari dagokionez, 2012/13 ikasturtean justifikatutako hainbat ordezkapen eskaera izapidetu ziren, honako arrazoi hauentagatik: bajak, amatasun baimenak, irakaskuntza enkarguaren murrizketak, bateraezintasunak, etab.

2012/13 ikasturtearen plangintza sail desberdinek emandako dokumentazioa aztertu ondoren egin zen. Dekanotza Taldeak plazak eskatzeko proposamen bat egin zuen eta ikasturteko Fakultateko Batzar desberdinetan onartu egin zituzten. Honako irizpide hauek erabili ziren aurkeztutako eskaerei zegozkien txostenak egiteko:

1. Euskalduntza prozesuaren aurrerapena indartzea
2. Eleaniztasuna sustatzea
3. Irakasleen berrikuntza ahalbidetzea
4. Irakasleak mailaz igortzea ahalbidetzea

13. taulan ZTF-FCTko Fakultate Batzarreko proposamenak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak horiei zegokienez hartutako erabakiak ikus daitezke.

13. taula.- 2012/13 ikasturtean egindako Fakultate Batzarretan aurkeztutako eskaeren eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak horie zegokienez hartutako erabakien laburpena.

2012ko urriaren 3ko Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Elektrizitatea eta Elektronika	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Berrikuntza	Bisitaria	Osoa	-	Aldekoa	Aldekoa
Kimika Ez-organikoa	Berria	Katedra	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa

2012ko abenduaren 19ko Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	LPZ aldaketa	Ikastegi aldaketa	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa

2013ko otsailaren 6ko Fakultate Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Biokimika eta Biologia Molekularra	Berrikuntza Berrikuntza	Elkartua Elkartua	3 ordu 3 ordu	Ez elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Aldekoa
Elektrizitatea eta Elektronika	LPZ aldaketa	Elkartua Katedra Titularra	4 ordu Osoa Osoa	Elebiduna Ez elebiduna Ez elebiduna	Aldekoa Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Kontrakoa Kontrakoa
Estatigrafia eta Paleontologia	LPZ aldaketa Berria	Agregatua Ikertzaile doktorea	Osoa Osoa	Elebiduna -	Aldekoa Aldekoa	Aldekoa Sin tratar
Fisika Aplikatua II	Berria LPZ aldaketa	Katedra Agregatua	Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Aldekoa
Materia Kondentsatuaren Fisika	Berria	Katedra	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Ingeniaritza Kimikoa	Berria Berria Berria Berrikuntza Berrikuntza LPZ aldaketa LPZ aldaketa	Agregatua Agregatua Atxikia Elkartua Elkartua Agregatua Titularra	Osoa Osoa Osoa 6 ordu 4 ordu Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna Elebiduna Ez elebiduna Ez elebiduna Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Kontrakoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa Kontrakoa
Matematika	Ordezkapena Ordezkapena	Eleaniztasuna Eleaniztasuna	4 ordu 4 ordu	Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Kontrakoa
Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa	Ordezkapena	Eleaniztasuna	4 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Favorable
Kimika Analitikoa	LPZ aldaketa LPZ aldaketa Berria Berria	Agregatua Agregatua Katedra Ikertzaile doktorea	Osoa Osoa Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna Ez elebiduna -	Aldekoa Aldekoa Aldekoa Aldekoa	Favorable Favorable Kontrakoa Lendu gabe
Kimika Ez-organikoa	LPZ aldaketa	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Kimika Organikoa II	Berria LPZ aldaketa	Katedra Titularra	Osoa Osoa	Elebiduna Elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Kontrakoa Kontrakoa
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	Plaza hutsa- LPZ aldaketa	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa

2013ko martxoaren 20ko Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	Baimena	Ikerbasque	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Berrikuntza	Emeritua	Osoa	Ez elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Kimika Fisikoa	Berrikuntza Berrikuntza	Emeritua Emeritua	Osoa Osoa	Ez elebiduna Ez elebiduna	Aldekoa Aldekoa	Ez aldekoa Ez aldekoa
Kimia Ez-organikoa	Berrikuntza	Elkartua	4 ordu	Ez elebiduna	Aldekoa	Aldekoa

2013ko uztailearen 4ko Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaerak

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Arduraldia	Profila	Proposamena	Erabakia
Landareen Biologia eta Ekologia	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Lendu gabe
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	LPZ aldaketa	Agregatua	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Lendu gabe
Geodinamika	LPZ aldaketa	Titularra	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Kontrakoa
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	Plaza hutsa- LPZ aldaketa	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Matematika	Plaza hutsa- LPZ aldaketa	Atxikia	Osoa	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa

Irakasle eta ikertzaileen banaketari dagokionez (14. taula), beren lana Fakultatean gauzatzen duten doktoratu aurreko nahiz ondoko ikertzaileen kopurua handia dela nabarmendu behar da. Multzo hau osatzen duten pertsonen kopurua irakasle kopuruaren antzekoa da, eta pertsona horien guztien artean, % 97 doktoreak dira eta % 44k profil elebiduna dute. 15. taulan, Zientzia eta Teknologia Fakultatera atxikitako Ikerbasque ikertzaileen banaketa ikus daiteke, sailen arabera.

14. taula.- Irakasle eta ikertzaileen banaketa ZTF-FCTn. Iturria: Pertsonaleko Gerenteordetza.

Kategoria	Guztira	Doktorea	Elebiduna
Emeritua	4	4	
Unibertsitateko katedraduna	124	124	19
Unibertsitateko titularra	147	147	68
Eskolako titularra	3		1
Osoa	1	1	
Agregatua	62	62	46
Laguntzailea	6	3	4
<i>Irakasle iraunkorrak</i>	347	341	138
Unib. lan kontratudun bitartekoa	18	16	14
Eskolako lan kontratudun bitartekoa	1		1
Elkartua	9	6	3
Irakasle atxikia	17	17	17
Irakasle bisitaria	5	5	
<i>Irakasle ez iraunkorrak</i>	50	44	35
Irakasleak guztira	397	385	173
Ikertzailea	126	62	
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (UPV/EHU)	32		1
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (MEC)	15		
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (EJ)	59		
Prestatzen ari diren praktiketako ikertzaileak (NG)	1		
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (UPV/EHU)	5		1
Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileak (EJ)	19		
Ikertzaile bekaduna (UPV/EHU)	30		2
Juan de la Cierva programako ikertzailea	1	1	
Ramón y Cajal programako ikertzailea	4	4	
Ikertzaile doktorea (EJ)	8	8	
Ikertzaile doktorea (Zientziaren Legea)	30	30	
Marie Curie programako ikertzailea	2	2	
Doktore ikertzaileak	14	14	
Ikertzaileak guztira	350	125	4
Irakasle eta ikertzaileak guztira	743	506	177

Administrazio eta zerbitzuetako langileen kudeaketari dagokionez, 16. taulan ikus daitezke ikastegiko langileen kopuruak.

2013ko maiatzean, UPV/EHUk 2012ko urtarrilean hasitako langile funtzionarioen lekualdaketen lehiaketari amaiera eman zion. Fakultate barneko lanpostu aldaketa batzuez gain, bederatzi pertsonak beste leku batzuetan lortu zuten plaza, eta plaza hutsetan langile berriak sartu ziren.

Era berean, Fakultateak egin dituen administrazio langileen eta menpeko langileen eskaerak direla eta, hiru pertsona esleitu zitzaizkion Fakultateari urtebeteko aldi baterako (bi administrari laguntzaile eta menpeko langile bat).




15. taula.- Ikerbasque ikertzaileen banaketa ZTF-FCTn. Iturria: Ikerketaren arloko errektoreordetza.

Saila	Fellow 1	Fellow 5	UPV/EHUko irakaslea (bisitaria)	Ikerbasqueko irakaslea (atxikia)	Ikerbasqueko ikertzaileak guztira
Landareen Biologia eta Ekologia	1	1	1		3
Biokimika eta Biologia Molekularra/Biofisika Unitatea	2	1	2	3	8
Elektrizitatea eta Elektronika			1		1
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	1	1	3	4	9
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia			1		1
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia				1	1
Matematika			2		2
Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa			1		1
Kimika Fisikoa			5		5
Kimika Organikoa II			1		1
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia			1		1
Guztira	4	3	18	8	33

16. taula.- ZTF-FCTri esleitutako AZPko langileak (Meta4-tik ateratako datuak).

Lanpostua	Pertsona kop.
LPZ eta laguntzaileak	
Administrazio burua	1
Administratzailea (koordinatzailea)	1
Ikastegiko teknikaria	1
Bulegoburua	1
Arloko arduraduna	1
Administrari laguntzaileak (ikastegia)	10
Dekanoaren idazkaria	1
Saileko idazkariak	18
Harrerako/Informazioko laguntzailea	1
Atezain nagusiak	3
Mendekoak	5
Multimediako arduraduna	1
Multimedia Sistemetako teknikari espezialista	3
Erreprografiako arduraduna	1
Laborategiko teknikari espezialistak (ikastegia)	10
Laborategiko teknikari espezialistak (sailak)	4
Laborategiko ofiziala (saila)	1
Irakaskuntzako eta Ikerketako teknikari laguntzailea	1
AZPko langileak, guztira (LPZ eta laguntzaileak)	64
AZPko beste langile batzuk	
Administraria	1
Graduondoko administrari laguntzaileak	3
Ikerketaren kudeaketa teknikaria	5
Informatikako teknikari espezialista (IISIZ)	3
SGLker zerbitzuetako teknikaria	11
SGLker zerbitzuetako teknikari laguntzailea	4
Laborategiko teknikari espezialista	2
AZPko beste langile batzuk guztira	29
Administrazio eta zerbitzuetako langileak guztira	93

Informazio osagarria gisa, jarraian beren lana Fakultatean gauzatzen duten AZPko langileen organigrama ikus daiteke (4. irudia).



4. irudia.- Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langileen organigrama.

4.2, Prestakuntza

2012/13 ikasturtean, Fakultateko 4 irakaslek amaiera eman diote Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (HELAZ) antolatutako ERAGIN programari (metodologia aktiboetako prestakuntza programa).

Horrez gain, Gradu Ikasketen Batzordeetako zazpi kidek (Biologia, Geologia, Ingeniaritza Kimikoa eta Kimika) mailako koordinatzaileek zuzendutako "Irakasle Taldeak Koordinatzeko Oinarrizko Estrategiak" tailerrean parte hartu dute (hori ere HELAZek antolatua). Aurreko bi edizioetan bezala, tailerraren hirugarren eta azken edizio honetan ere M^a Pilar Ruiz de Gauna eta Teodoro Palomares irakasleen laguntza izugarria izan dugu.

EHUndu programaren finantziazioari esker, ZTF-FCTko lehenengo Irakaskuntza Koordinazioaren Jardunaldia antolatu zen, aurrez Gradu Ikasketen Batzordeek eta ikastegiko irakasleek egindako koordinazio lanari jarraipena emanez. Jardunaldi hau ikasleen gaitasunei eta Gradu Amaierako Lanean jasotzen duten ebaluazioari buruzko hausnarketarako eta elkarrizketarako gun e bihurtu zen (3.5 HE). Hizlarien esku-hartzeen grabazioak gure web orrialdean eskura daitezke: www.ztf-fct.org > Irakaskuntzaren Berrikuntza (7.2 HE).

ZTF-FCT-ko Irakaskuntza-Koordinazioaren Jardunaldia

Jornada de Coordinación Docente de la ZTF-FCT

10:00-10:30 “Los Grados en la ZTF-FCT: ¿De dónde venimos, dónde estamos y hacia dónde vamos?”
Jose Luis Pizarro y Olatz Zuloaga (ZTF-FCT)

10:30-11:30 “Implementación de las competencias transversales en los estudios de grado. Una experiencia”
Concepció Amat Miralles (Fac. Farmacia, Univ. de Barcelona)

11:30-12:00 Kaferako Atsedendaldia / Pausa para el café

12:00-13:00 “Diseño y evaluación de la asignatura Trabajo Fin de Grado”
Elena Escubedo Rafa (Fac. Farmacia, Univ. de Barcelona)

Abenduak 14 de Diciembre
Paraninfo




Bigarren lauhilekoan, “ZTF-FCTko ikasleen zeharkako gaitasunen definizioa” prestakuntza tailerra egin zen ikastegian (1.1 HE, 4.2 HE). Bertan, Fakultateko Gradu Ikasketen Batzordeetako kide diren 27 irakaslek hartu dute parte, Kalitate eta Berrikuntzako dekanorde José Luis Pizarrok koordinatuta.

Hauek izan ziren parte-hartzaileak:

- Ana Isabel Puente Martínez, Biologiako Graduako Tutoretza Planaren koordinatzailea.
- Ana María Valle Martín, Matematikako Graduako 2. mailako koordinatzailea.
- Andrés Tomás Aguayo Urquijo, Ingeniaritza Kimikoko Graduako titulazio koordinatzailea.
- Arantza Aramburu Artano, Geologiako Graduako 4. mailako koordinatzailea.
- Arturo Apraiz Atucha, Geologiako Graduako 2. mailako koordinatzailea.
- Fernando Luis Hernando Echevarría, Bioteknologiako Graduako 2. mailako koordinatzailea.
- Gorka Arana Momoitio, Kimikako Graduako 1. mailako koordinatzailea.
- Irantzu Martínez Arkarazo, Kimikako Graduako 3. mailako koordinatzailea.
- Jesús Ángel Uriarte Goti, Geologiako Graduako 4. mailako koordinatzailea.
- Joaquín Portilla Rubín, Ingeniaritza Elektronikoko Graduako titulazio koordinatzailea.
- Manuel Carracedo Sánchez, Geologiako Graduako 1. mailako koordinatzailea.
- María Amparo Varona Fernández, Ingeniaritza Elektronikoko graduako 1. mailako koordinatzailea.
- María Asunción García Sánchez, Matematikako Graduako titulazio koordinatzailea.

- María Asunción Requero Zabala, Bioteknologiako Graduako Tutoretza Planaren koordinatzailea.
- María Begoña González Moro, Bioteknologiako Graduako 3. mailako koordinatzailea.
- María Inés Arana Basabe, Biologiako Graduako laborategiko praktiken koordinatzailea.
- María Isabel Moreno Benítez, Kimikako Gradu Amaierako Lanaren koordinatzailea.
- María Isabel Salcedo Larralde, Biologiako Graduako titulazio koordinatzailea.
- María Jesús Llama Fontal, Bioteknologiako Graduako titulazio koordinatzailea.
- María José de Velasco Cámara, Matematikako Graduako 1. mailako koordinatzailea.
- María Teresa Herrero Corral, Kimikako Graduako titulazio koordinatzailea.
- Mercedes Martínez Bilbao, Biokimika eta Biologia Molekularreko Graduako titulazio koordinatzailea.
- Miriam Arabiourrutia Gallastegui, Bioteknologiako Graduako 1. mailako koordinatzailea.
- Nerea Otegi Urdanpilleta, Ingeniaritza Elektronikoko Graduako 2. mailako koordinatzailea.
- Pedro Pablo Gil Crespo, Geologiako graduako titulazio koordinatzailea.
- Raúl San Martín Faces, Kimikako Graduako 4. mailako koordinatzailea.
- Rubén López Fonseca, Ingeniaritza Kimikoko Graduako Tutoretza Planaren koordinatzailea.

5 bilkura egin ziren, honako egun hauetan: 2013ko urtarrilaren 22a, otsailaren 13a, martxoaren 12a eta apirilaren 23a. Bilkura horiek lantalde desberdinek lortutako emaitzak elkar ezagutarazteko balio izan zuten. Tailerrean aterarako ondoriak honako dokumentazio honetan bildu dira:

- ZTF-FCTko 6 ZGen (zeharkako gaitasunak) eta horien elementuen definizioa (17. taula).
- ZGen, horien elementuen eta menperatza mailen fitxa teknikoak.
- ZGak garatzeko lan ereduaren proposamena.
- ZTF-FCTko ZGen eta 9 graduen memorian aipatutakoen arteko loturen taulak.

Egindako lana Kalitate eta Berrikuntzako dekanordeak maiatzaren 31n, "Formación en Competencias. Reto de la Universidad en el Siglo XXI" jardunaldiaren barnean emandako "Las Competencias Transversales: Claves para la formación integral del alumnado" hitzaldiaren ondorioz sortu da. Jardunaldi hori UPV/EHUren Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan egin zen eta AIFEk antolatu zuen (Bikaintasunerako Prestakuntzaren Diziplinarteko Elkartea; <http://blogaife.blogspot.com.es>).

17. taula.- "ZTF-FCTko ikasleen zeharkako gaitasunen definizioa" tailerrean zehaztutako zeharkako gaitasunen eta horien menperatze mailen laburpena.

ZTF-FCTko zeharkako gaitasuna	Kod.	Elementua	1. maila	2. maila	3. maila
Konpromiso etikoa	1a	Jokabide kontsekuentea	Kode deontologikoak errespetatzea	Ezarrirako kodeen arabera jardutea beti	Zehaztasun profesionala duten jarduketa estrategiak proposatzea
	1b	Autokritika	Norberaren ahultasunak lantzea	Gaiztatzeko estrategiak garatzea	Gure erabakien ondorioak baloratzea
	1c	Inpaktu soziala aztertzea	Aurrerapenak eta behar sozialak erlazioatzea	Arriskuak aztertzea	Estrategia iraunkorrak garatzea
Ikasteko gaitasuna	2a	Informazio iturriak erabiltzea	Informazio iturriak erabiltzea	Informazioa antolatzea eta barneratzea	Informazio alternatibo esanguratsua eskuratzea
	2b	Informazioa eta aztertzea eta laburtzea	Oinarrizko ideiak eta kontzeptuak identifikatzea	Funtsezko ideiak eta kontzeptuak erabiltzea	Informazioa erlazioatzea eta integratzea
	2c	Ezagutza eraikitzea	Beharrak ikustea eta galderak azalartzea	Helburuak zehaztea eta ezagutza sortzea, galderetatik abiatuta	Ezagutza egoera konplexuetara eramatea
Taldea lana	3a	Taldean lan egiteko plan bat egitea	Helburuak, zereginak eta eginkizunak identifikatzea	Zereginak programatzea eta baliabideak deskribatzea	Espazio integratzaile bat eraikitzea eta baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea
	3b	Prozedura eraginkor bati jarraitzea	Taldeko elkarrekintza deskribatzea	Ideen sorrera deskribatzea	Zailtasunei aurre egiteko erabakiak hartzea
Sortzeko eta ekiteko gaitasuna	4a	Sortzeko eta berrikuntzarako gaitasuna	Idea originalak proposatzea edo erabilerak berriz definitzea	Arazoak konpontzeko aukera berriak diseinatzea	Konponbide berritzaileak aplikatzea
	4b	Ekiteko gaitasuna	Jarrera aktiboa hartzea eta gertakariak zalantzan jartzea	Aukera desberdinen lehenetsunak ezartzea, bideragarritasun irizpideak aplikatuz	Proiektu originalak garatzea
	4c	Egoera berrietara egokitzea, ikuspegi kritikoarekin	Ingurune desberdinetara egokitzea	Ingurune desberdinetan sartzea	Egoera berrien aurrean, arriskuak beren gain hartzea
Komunikatzeko gaitasuna	5a	Diziplinari dagokion terminologia ezagutzea	Terminoak identifikatzea	Terminoak erabiltzea	Termikoak zorroztasun akademikoarekin erabiltzea
	5b	Ahozko komunikazioa	Kontzeptu bat azaltzea	Lan bat aurkeztea	Memoria bat aurkeztea eta defendatzea
	5c	Idatzizko komunikazioa	Kontzeptu bat idaztea	Testu bat idaztea	Memoria zientifiko bat idaztea
	5d	Ingelesaren erabilera	Oinarrizko testuak ulertzea	Testu laburrak idaztea	Memoria bat eta/edo ahozko aurkezpen bat egitea
	5e	IKTen erabilera	IKT baliabideak erabiltzea	IKT baliabide egokienak aukeratzea	Komunikazio zientifikorako IKT baliabideak erabiltzea
Autonomia eta erantzukizuna	6a	Hausnarketa eta ikerketa prozesua	Prozedura bati jarraitzea	Prozedura egokiak aukeratzea	Prozedura egoki bat diseinatzea
	6b	Baliabide pertsonalen kudeaketa	Helburuak zehaztea eta lan pertsonala antolatzea	Baliabide pertsonalak behar bezala erabiltzea	Proiektu konplexu bat planifikatzea eta garatzea
	6c	Elkarrikeria eta erantzukizuna	Norberaren ekintzen kontziente izatea	Norberaren ekintzen ardura hartzea	Jarrera konstruktiboa eta lankidetzarako egokia izatea
	6d	Erabakiak hartzea	Erabaki pertsonalak hartzea	Arlo zehatzeko erabakiak hartzea	Esparru konplexuetako erabakiak hartzea

2013/14 ikasturtean tailerraren bigarren edizio bat egingo da. Zehazki, ikasleen gaitasunen garapenaren eta ebaluazioaren planifikazioan sakondu nahi duten Graduoko Ikasketen Batzordeei egongo da zuzenduta.

"ZTF-FCTko Gradu Amaierako Lanak Ebaluatzeko Irizpideak" tailerra egin zen, Titulazioen Garapeneko dekanorde Olatz Zuloagak koordinatuta. GIBetako Gradu Amaierako Lanen koordinatzaileei zuzenduta egon zen, eta honako hauek hartu zuten parte bertan:

- Irrintzi Ibarrola Bellido, Biologiako Graduoko GALaren koordinatzailea.
- Juan Luis Serra Ferrer, Bioteknologiako Graduoko 4. mailako koordinatzailea.
- Asier Eiguren Goyenechea, Fisikako Graduoko titulazioko koordinatzailea.
- Alejandro Cearreta Bilbao, Geologiako Graduoko GALaren koordinatzailea.
- Josu Jugo García, Ingeniaritza Elektronikoko Graduoko GALaren koordinatzailea.
- José María Arandes Esteban, Ingeniaritza Kimikoko Graduoko GALaren koordinatzailea.
- Josu Sangroniz Gomez, Matematikako Graduoko GALaren koordinatzailea.
- María Isabel Moreno Benítez, Kimikako Graduoko GALaren koordinatzailea.
- Josu Mirena Igartua Aldamiz, Ikasleen eta Nazioarteko Harremenen dekanordea.

7 bilkura egin ziren, honako egun hauetan: 2013ko urtarrilaren 16a, urtarrilaren 29a, otsailaren 19a, martxoaren 5a, martxoaren 26a, apirilaren 16a eta maiatzaren 7a. Horrez gain, taldeko bilkurak egin ziren aldi berean. Horietan egindako lana honako dokumentazio honetan bilduta gelditu da.

- Fakultateko gradu bakoitzaren GALaren barneko 9 araudiak.
- GALari buruzko gida azkarrak, ikasleentzat eta irakasle eta ikertzaileentzat.
- GAURi buruzko eskuliburuak, ikasleentzat eta irakasle eta ikertzaileentzat.
- ADDI eskuliburuak.
- GALaren ebaluazio irizpideak barne hartzen dituen kalkulu orria, ebaluazio epaimahaiek erabil dezaten.

9 graduetako GALaren barne araudiak 2013ko maiatzaren 28ko Fakultateko Batzarrean aurkeztu eta onartu ziren, ikastegiko oinarrizko GALaren araudiaren egokitzapenarekin batera. Sortutako dokumentazio guztia ikastegiaren web orrialdean dago argitaratuta (www.ztf-fct.org). Hori ikusteko, atarian nabarmendutako "Gradu Amaierako Lanak" bannerra erabil daiteke, "Informazio akademikoa > Araudia" atala aukeratuta edo ikastegian emandako graduei eskainitako orrialdean sartuta ("Titulazioak > Graduak").

EHUndu programaren finantziazioari esker, ikastegiko irakasleen gauzatutako hezkuntza berrikuntzarako jarduera batzuk irakaskuntzaren berrikuntzarako hainbat biltzarretan aurkeztu dira, bai nazionaletan bai nazioartekoetan (UNIVEST'13, INTED 2013, EDULEARN 2013). Horri esker, esperientziak elkartrukatu ahal izan ditugu hezkuntzaren berrikuntzaren arloko beste kide batzuekin, lankidetzaren sare berriak ezarriz (OE3.5).

Amaitzeko, gutxi gorabera 80 irakasle eta ikertzailek hartu dute parte Bizkaiko Campuseko Bibliotekak eskainitako prestakuntza ikastaro hauetan:

- Refworks-en hastapenak
- Sarbide irekiko tailerrak
- Sciverse Scopus plataformaren hastapenak
- Web of Science (WoS) eta Journal Citation Reports (JCR)
- Ekoizpen zientifikoaren ebaluazioa: akreditazioak eta seiurtekoak eskatzeko adierazleak eta tresnak.

Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzarako Gerenteordetzak **administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntzarako plan** bat du. Horren bidez, hainbat ikastaro antolatzen ditu bertan zehaztutako prestakuntza arlo guztietan (prebentzioa, ofimatika, osasuna, kontabilitatea, langilea, etab.).

Fakultateak bere administrazio eta zerbitzuetako langile guztiak ikastaro horretara joatea ahalbidetzen eta bultzatzen du. Horrez gain, langile horiek nahitaez eman behar dute izena ikastegiaren kudeaketa hobetzeko garrantzitsutzat jotzen diren ikastaroetan edo prebentzioari, suteei, lehen sorospenei eta hondakinen kudeaketari buruzko ikastaroetan.

Beraz, 31 pertsona bertaratu dira arlo desberdinetako 20 prestakuntza ikastarotara (prebentzioa, lehen sorospenak, iraunkortasuna, kudeaketa ekonomikoa, administrazio prozedura, ofimatika eta ingelesa).

Bestalde, Euskararen arloko Errektoreordetzak euskara ikasteko hainbat liberazio eta ikastaro argitaratzen ditu urtero. Hona hemen euskara ikasteko liberazioak izan dituzten edo euskara ikastaroetara joan diren Fakultateko AZPko langileak:

- 1 pertsona liberatu da euskara ikasteko.
- 1 pertsona liberatu da egunean 2 orduz euskara ikasteko.
- 1 pertsona aritu da euskara ikasten bere ordutegitik kanpoko.
- 1 pertsona bertaratu da euskara hobetzeko ikastarora.

Beste alde batetik, ikastegiko koordinatzaileak edo administrazio buruak harrera elkarrizketa bat egiten die Fakultatera sartzen diren administrazio eta zerbitzuetako langileei. Elkarrizketa horretan, AZPko langileei Fakultatearen eta bere ezaugarrien berri ematen zaie, baita Prozesuen bidezko Kudeaketa Sistemaren berri ere (UNIKUDE), bere lana barne hartuko duten prozedurei arreta berezia eskainiz. Horrez gain, gauzatuko duten jardueren arriskuen ebaluaziori buruzko informazioa ere ematen zaie (informazio hori UPV/EHUko Langileen Atarian ikus daiteke). Azkenik, ikastegiko langileak eta arduradunak aurkezten zaizkie.

4.3, Inplikazioa, sustapena eta aintzatespena

ZTF-FCTn balioetako bat ikastegiko parte diren pertsonen bertako bizitza akademikoan nahiz ikastetez kanpokoan duten inplikazio handia da. Irakasleen eta AZPko langileen ezaugarri horrek balio erantsia ematen dio Fakultateari eta ZTF-FCTren marka gizartean

hedatzen laguntzen du. Hala, ezaugarri gisa dugun erantzukizun instituzionaleko zentzuak proiektu berriak garatzen laguntzen digu eta eredu eta helburu partekatuak oinarri dituen laneko giroa ahalbidetzen du; betiere, gure Fakultatearentzat onartutako XEDEA eta IKUSPEGIA kontuan hartuta.

Krisia dela eta, momentu oso zailak igarotzen ari gara, eta hori dela eta, nahitaezkoa izan da arlo publikoko sustapen pertsonalerako prozesuak zorrozki mugatzen dituen araudi zehatz bat ezartzea. Dena den, ahal izan dugun guztietan, hala eskatu duten Fakultateko kideen sustapen pertsonala babesten saiatu gara (bai irakasle eta ikertzaileena bai AZPko langileena).

Esaterako, Kimika Analitiko Saileko irakasle titular baten plaza betetzeko oposizio lehiaketa onartu eta egin da. Horrez gain, Animalien Fisiologia, Genetika eta Antropologia Fisikoa Saileko Antropologia Fisikoa ataleko lanpostu bat titular kategoriatik katedradun kategoriara igarotzeko proposamena onartu zen.

AZPko langileei dagokienez, aurrez aipatu bezala, 2013ko maiatzean UPV/EHUK 2012ko urtarrilean martxan jarritako langile funtzionarioen lekualdatze lehiaketari zegozkion mugimenduak amaitu zituen. Fakultatearen barneko aldaketez gain, bederatzi pertsonak beste leku batzuetan lortu zuten plaza (horietako batzuk mailaz igo ziren gainera).

Honako aintzatespen ekitaldi hauek egin dira:

1. Diplomen entrega

Zientzia eta Teknologia Fakultateko XL. promozioarentzako diplomen eta beken entrega Alberto Magno ekitaldian egin zitzairen 2011/2012 ikasturtean titulua lortu zuten bederatzi pertsonari. Ekitaldia Unibertsitateko Aula Magnan egin zen, 2012ko azaroaren 14an, zientzialarien zaindari Alberto Magnoren jaiegunean. Ikerketaren arloko errektoreorde Miguel Angel Gutierrez aritu zen presidente gisa, eta bertan izan ziren, halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Isabel Celaá, UNIBASQeko zuzendari Juan Andrés Legarreta eta Fakultateko dekanu Esther Domínguez.

Ekitaldi horretan, aintzatespena egin zitzairen titulazio bakoitzeko espediente onena lortu zuten ikasleei: Maitane Erdozain Ibarra, Biologian lizentziatua; Ibai Arteche González, Biokimikan lizentziatua; Leyre Rodríguez Zubiaurre, Ingurugiro Zientzietan lizentziatua; Jon Errandonea Martín, Geologian lizentziatua; Iciar Uriarte Hernando, Kimikan lizentziatua; Mikel Landajuela Larma, Matematikan lizentziatua; Ane Solagaistua Zabala, Fisikan lizentziatua; Ibai Aedo Goñi, ingenari elektronikoa; Aitor Pablos Castro, ingeniari kimikoa.

Horrez gain, aintzatespena egin zitzairen aurreko promozioan (2010/2011 ikasturtea) Sari Berezia jaso zutenei: Maite Arroita Azkarate, Biologian lizentziatua; Patricia Bilbao Ergueta, Fisikan lizentziatua; Zaloa Bravo del Hoyo, Biologian lizentziatua; Aingeru Fernández Bertolín, Matematikan lizentziatua; Ane Metola Martínez, Biokimikan lizentziatua; Maria Navarro Gastiasoro, Fisikan lizentziatua; Edurne Rujas Díez, Biokimikan lizentziatua; Oihana Txoperena Matxikote, Fisikan graduatua.

2. Erretiratutakoen eta Fakultatean 25 urte egin dituztenei omenaldia.

2012ko azaroaren 14an egindako Alberto Magno ekitldian, aintzatespen publikoa egin zitzairen erretiratutako irakasleei eta Fakultatean 25 urtez lan egin duten langileei. Dekanoak beren merezimenduak aipatu zituen eta eskerrak eman zizkien egindako lanagatik eta ikastegiaren alde egindako guztiagatik. Ondoren, Isabel Celaá sailburuak oroigarri bat eman zien erretiratutako irakasle hauei: Eduardo Angulo, Jesus María Arregi eta José Ignacio Maeztu. Ezin etorria adierazi zuten Lucio Fernández eta Ignacio Mazón irakasleek.

Miguel Angel Gutierrez errektoreordeak oroigarri bana eman zien irakasle hauei, Fakultatean igarotako 25 urteengatik: José Ignacio Peña, Alicia Muela, Federico Mijangos, María Angeles Urbaneja, José Antonio Santisteban, Juan Antonio Marigomez, Miren Igone Zabala, María Isabel Arrieta, Miren Andone Estomba, Julio Garcia, Fernando Hernando, Carmen Manzano, Luis Miguel Martinez eta Pilar Rodriguez.

3. Irakasleei zuzendutako beste aintzatespen batzuk.

Bestalde, ekainaren 12an, omenaldi bat egin zitzaion Francisca Vicente irakasle emerituari, Paraninfoan, araudiaren araberako adina bete duenez ikastegitik joan delako. Ekainaren 28an, Fakultateak omenaldia eta aintzatespena egin zion Luis Vega irakasleak (analisi matematikoko katedraduna), 2012ko ikerketaren arloko Euskadi Saria lortu izanagatik. Uztailaren 5ean, Kimika Bizirik ekitaldian parte hartu zuten irakasleek bazkari bat egin zuten dekanoarekin batera. Bazkari hori DBHko eta batxilergoko gazteen artean kimika hedatzeko egindako lan boluntarioaren eta desinteresatuaren aintzatespen gisa antolatu zen.


4. Fakultateko AZPko langileei agur esateko eta harrera egiteko ekitaldiak.

Apirilaren 30ean, dekanok ikastegitik zihoazen AZPko langileak bildu zituen; eskerrak eman zizkien bertan egindako lanagatik eta beren arlo profesional berrirako zorterik onena opa zien. Betiko Fakultatearen zati izango zirela gogorarazi zien eta oroigarri bat eman zien, ikastegiari eskainitako urteak eskertzeko eta gogorarazteko. Zehazki, langile hauek hartu zuten parte ekitaldian: M^a Luz González, Juan Manuel Gardoqui, Nuria Cano, Yolanda Arrizabalaga, Fco. Javier Bayón, Lourdes Sirvent, Bonifacio Fuertes.

Maiatzaren 3an, dekanok, Dekanotza Taldeko kide batzuen laguntzaz, ongietorria egin zien ikastegira sartutako AZPko langile berriei. Ikastegiaren aurkezpen txiki bat egin zen (langileak, titulazioak, instalazioak, xedea eta ikuspegia), eta berengan konfiantza osoa dugula jakinarazi zitzairen, guztion artean gure ikasleentzako prestakuntza hobea lortzeko aurrera egiteko. Zehazki, pertsona hauek sartu dira Fakultatera: Idazkaritzako bulego buru Aurelia Álvarez, multimedia laguntzarako arduradun Rosa Ausín, atzezaintzako atezain nagusi Jesús Maria Basterretxea eta Fakultateko sail desberdinetako idazkari Marisa Toral, Cesar Lasa, M^a Jose Llona, Marta Saldaña, Inma Uceda eta Isabel Abelairas.

5. prozesua. Ekonomia eta Administrazioa

Laguntza prozesu hau ohiko eta ezohiko bidetik lortutako finantza baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeaz arduratzen da, Fakultateko irakaskuntza eta ikerketa jarduerak ahalik eta ondoen gauza daitezzen.



UPV/EHUK bere aurrekontuak urte naturalen arabera onartzen ditu, beraz, txosten honetan 2012ko Txosten Ekonomikoa eta 2013ko ekitaldiko aurrekontua aipatu behar ditugu. 2012ko ekitaldiari dagokionez, Txosten Ekonomikoa, Fakultateko Batzarre Ekonomikoa onartu ondoren, Ikastegiko Batzarrean aurkeztu zen, 2013ko martxoaren 20an, zegokion onarpena eman ziezaioten.⁹

Bestalde, hasiera batean ikastegiari esleitutako 2013ko aurrekontuak % 40ko murrizketa zuen, aurreko urtekoarekin alderatuta. Dena den, Gobernu Kontseiluak onartutako zuzenketa bati jarraituz, esleitutako kopurua beste 10853.08 €tan areagotu zen. Berez, azkenean, ikastegiari esleitutako aurrekontua 128988.04 €-koa izan zen. Ondorioz, aurrekontuaren murrizketa % 34.46koa izan zen, aurreko urtearekin alderatuta.

Ezohiko finantziazio gisa lortutako kopuruari dagokionez, 38559.13 €-koa izan zen. Hauek dira finantziazio horren iturri nagusiak:

- i) Fakultateak EHUndu deialdian izandako parte-hartzea.
- ii) Kalitate Programak Bultzatzeko Deialdian (IPC) izandako parte-hartzea.
- iii) Lokalak eta industria nabea alokatzeagatik jasotako diru-sarrerak.
- iv) Ekoscan ingurumen ziurtagiriari bere horretan eusteko deialdia.
- v) Bizkaiko Campusaren kultura jardueretarako deialdia.

⁹ 2012ko Txosten Ekonomikoa, Batzarrak onartutakoa, ikastegiaren intranetean kontsulta daiteke.

Batzorde Ekonomikoaren laguntzarekin, ikastegiko irakaskuntza azpiegituraren 2013 ikasturterako eskaera kudeatu da. Kudeaketa horren ondorio gisa, Fakultateak 90444.10 €-ko zenbatekoa jaso du Campuseko Errektoreordetzaren eskutik.

2013 urteko Txosten Ekonomikoa Fakultate Batzarrean aurkeztuko da dagokionean.

Fakultateko administrazio buruak, administrazio zerbitzuen arduradun gisa, kudeaketa ekonomikoaz arduratzen diren pertsonen taldea gidatzen du, zehazki: koordinatzailea, ikastegiko teknikaria eta bi administrari laguntzaile. Talde honen zeregina ikastegiko aurrekontua prestatzea, kudeatzea eta likidatzea da, baliabide ekonomikoak modu eraginkorrean kudeatuz. Horrez gain, ekipamendua eskuratzeaz eta horren mantentze-lanak gauzatzeaz arduratzen dira.

Bestalde, administrazio taldea arduratzen da tesien eta irakaskuntza plazen emaipamahaien kudeaketa ekonomikoaz, baita barneko nahiz kanpoko fakturazioaz ere. Horrez gain, Fakultateko lokalen alokairuaren kudeaketa hobetu du.

2012/13 ikasturtean, sailei eta irakasleei eragiten dieten prozedurak hobetze aldera, erreprografia eta posta gastuei dagozkien barneko fakturazioaldiak bi hilabetera murriztu dira.

Bestalde, Administrazio Taldeak hainbat erosketa egin ditu; horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:


- 17 proiektore, 2 anplifikadore eta 2 erretroproiektore eskuratu dira, lehendik ikasgeletan zeudenen ordeztatzeko, eta gerta daitezkeen larrialdi egoeretarako erreserbak izateko.
- Informatika geletako azpiegitura hobetu da. Horretarako, 32 aulki arrunt beste hainbeste aulki birakariekin ordeztu dira erabilera libreko informatika gelan, eta gortinak jarri dira 6. informatika gelan.
- Ikasketa gunerako 6 mahai eta ikasleentzako 4 armairu bloke erosi dira.
- Fakultatearen komunikazioa eta gizarte proiektua hobetze aldera, formatu handiko 3 olana egin ziren, graduak, Ate Irekien Jardunaldiak eta Enpresak eta Zentro Teknologikoak Aurkezteko Jardunaldiak ezagutarazteko. Olana horiek Fakultatearen fatxada nagusiaren zati bat estaltzen dute ekitaldi horiek egiten diren egunetan eta selektibitate garaian, Fakultatearen presentzia soziala areagotzeko eta bertako ikasle izan daitezkeen gazteen artean Fakultateko graduak promozionatzeko helburuarekin.
- Erabilera berriak sartu dira ordutegiak eta ikasgelak kudeatzeko IKPro aplikazioan, irakaskuntza espazioen erabilera hobetzeko prozesuan aurrera egiteko asmoz.

6. prozesua. Baliabide materialak eta zerbitzuak

Laguntza prozesu honen xedea Fakultateko azpiegiturak modu eraginkorrean kudeatzea eta horien hobekuntza sustatzea da, irakaskuntza eta ikerketa zereginak hobeto gauzatzeko. Horrez gain, ZTF-FCTko langileen laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeaz eta Fakultatearen jarduerak ingurumenean duten inpaktua murrizteaz arduratzen da. Ekoscan ziurtagiriaren kudeaketa barne hartzen du eta honako prozedura hauek osatzen dute:

6.1, Lokalak eta zerbitzuak

6.2, Segurtasuna, prebentzioa eta ingurumena



6.1, Lokalak eta zerbitzuak

2.1 "Irakaskuntza espazioen erabilera hobetzea" helburu estrategikoa hobetze aldera, irakaskuntzarako egokitutako lokal berriak eduki ahal izateko azterketa bat egin da. Horren harira, 2012/13 ikasturtean 0.19, 0.19A eta 0.21 irakaskuntza laborategi berrien egokitzapena amaitu da eta Ingeniaritza Kimikoko, Bioteknologiako eta Fisikako Graduetako irakaskuntzarako esleitu dira, hurrenez hurren. Horri esker, irakaskuntza praktikoa asko hobetu da.

0.19A laborategian C2 euste maila duen laborategi kalifikazioa lortzeko beharrezko azpiegitura jarri eta segurtasun neurriak ezarri dira. Kalifikazio hori UPV/EHuren Prebentzio Zerbitzuak ematen du.

Horrez gain, informatika gelen eskaera handiari erantzuna ematen jarraitu dugu. Horretarako, bi informatika gela berri sortu ditugu: 0.24 eta 0.24S (bakoitzean 20 ordenagailu).

Bestade, AI.4 informatika gelan beste 4 ordenagailu jarri ditugu, IKTen Gerenteordetzak emandako diru-laguntzari esker (orain 36 ordenagailu daude).

Irakaskuntza metodologia berrien alde egiteko helburuarekin, Fakultateak **ikasleentzako lokak berriak** jarri ditu ikasturte honetan:

- 1. mintegia, sarrera libreko informatika gelaren aurrean kokatua, talde lanak egiteko. Lokal horren erabilera protokolo bat egin da.
- 0.9 gela, altzari mugikorrek hornitua eta ordenagailuarekin lan egiteko prestatua. Gela horretan irakaskuntzarik ez dagoen orduetan erabili ahal izango da.
- 1.5 gela, ikasteko.

Horrez gain, **bi telefono berri jarri dira B eraikineko 2. solairuan, 2.1-2.16 gela korridorean**, atezaintzarekiko komunikazioa hobetzeko.

Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saileko F1.S1.5 **ikerketa laborategiaren** antolamendua aldatu da.

Bestalde, ikastegiko **beste lokal batzuk** hobetzera bideratutako jarduerak egin dira. Fakultateko **beheko solairuko atezaintzaren** lokala berregituratu da. Lokala zatitu egin da, biltegi txiki bat jartzeko.

Langile berriak sartu direnez, **Multimedia Zerbitzuaren** lokala ere beste era batera antolatu behar izan da.

Ikasle Kontseiluari esleitutako lokaleko altzariak aldatu egin dira.

Landareen Biologia eta Ekologia Sailak eskatuta, obrak egin dira **sail horretako idazkaritzaren** lokalean. Zehazki, komunikazio leiho bat jarri da idazkaritzaren eta ondoko bulegoaren artean.

Herbarioa guztiz isolatu da, ondoko lokaletan hezetasunak sortzea saihesteko.

2012/13 ikasturtean, Fakultateko **biltegien eta aireztapeneko patioen** azterketa bat egin da. Horri esker, beste bi biltegi jarri ahal izan dira (B3.P2 eta B5.P2.6 lokalak), eta horietako bat Idazkaritzarentzako artxibo gisa erabiliko da.

Biltegien eta aireztapeneko patioen inbetarioa, eta horien egungo egoera, barne hartzen duen datu-base bat sortzeari ekin zaio.

Ildo horretatik, **Paraninfoaren beheko aldean dagoen aireztapeneko patioa**, Ekologia ataleko Geologiako ikertzaileek biltegi gisa erabiltzen dutena, egokitzen ari dira.

Eraginkortasun energetikoa hobetzeko, ate bikoitz bat jarri da Fakultateko sarrera nagusian eta Kimikako eta Matematikako sarreretako ate bikoitzak ordeztu dira.

Prozesu honen barnean gauzatutako ekintzen artean, hauek ere sartzen dira:

- Zabaltzan dauden erabili gabeko gas bala guztiak kentzea.
- Produktu kimikoen biltegian apalak jartzea.
- Hondakinak bereizi ahal izateko edukiontzi berriak jartzea.
- **Altzariak eskatzeko protokolo bat** diseinatzea, saileko zuzendariek altzarien eskaerak bidera ditzaten.

- Ikasgeletarako, irakaskuntza laborategietarako eta ikerketa laborategietarako altzariak eskatzea.
- Campuseko Gerenteordetzak kontzeptu honi esleitutako aurrekontuak jasandako murrizketa dela eta, ikastegian lehendik dauden altzariak berrerabiltzea.
- Azpiegitura informatikoa berrerabiltzea. Ordenagailuak eta pantailak banatu dira hala eskatu duten sailen artean, graduako eta graduondoko irakaskuntza hobetu ahal izateko.
- Lau panel berri erostea.

Horrez gain, aipatu behar da ikasturte honetan **Fakultateko lokal desberdinen okupazioa** aztertzeari ekin zaiola, ikastegian dauden baliabideen erabilera optimizatze aldera. Horretarako, pilatutako informazioa ordenatzen duen datu-base bat sortu da.

Azkenik, Kimikaren Nazioarteko Urtea ospatze aldera, fulereno molekula baten modelo bat (eskalan egina) jarri zen Idazkaritzako sarreran. Juan Manuel Gutierrez-Zorrilla eta José Luis Vilas irakasleek sustatu zuten ideia, eta baita modeloa diseinatu ere, Victor Serna arkitektoaren laguntzarekin. UPV/EHUren Arkitektura eta Lanen Zerbitzuko kide Pedro Perez arduratu zen modeloa eraikitzeaz eta muntatzeaz.

6.2, Segurtasuna, prebentzioa eta ingurumena

Segurtasunarekin eta prebentzioarekin lotutako jardueri dagokienez, ZTF-FCTko zabaltzan kokatutako **hondakin eta produktu kimikoen biltegien** segurtasuna hobetzera bideratutako zenbait ekintza nabarmendu behar dira.

- Fakultateko zabaltzan kokatutako produktu kimikoen eta hondakinen biltegiak Industria Erregistroan jasotzeko beharrezko kudeaketak egitea.
- CD3 eraikineko karga jasogailuko segurtasun sistema instalatzea, hondakin eta produktu kimikoak zabaltzara eraman ahal izateko, laguntzaile batekin joan behar izan gabe.
- Hondakinen biltegiko eta produktu kimikoen biltegiko tenporizadorearen funtzionamendua egiaztatzea, airearen berriztapena hobetzeko eta usain txarrak pilatzea saihesteko.
- Biltegietara karga jasogailutik sartzeko arrapala aldatzea, produktuen garraioa errazteko.

Gauzatutako beste ekintza multzo bat Fakultateko **suteen aurkako sistema** hobetzera eta **Larrialdietarako eta Autobabeserako Planeko** gomendioak betetzera daude bideratuta.

- Sercoin enpresak detekzio automatikorako sistemak hobetzeko lanak gauzatzea. Lan horiei esker, sistema egonkorragoa da orain.
- Ikasgelen edukiera okupazio eta ebaluzio araudira egokitzea. Horretarako, idazmahaiak kendu behar izan dira ikasgela batzuetan.
- Ebakuazioa oztopatzen duten elementuak kentzea.

Segurtasunaren arloko lehentasunezko bi multzo handienetan sartzen diren jarduketa horiez gain, **beste ekintza batzuk** ere gauzatu dira:

- Eskuzko 8 ateak kentzea CD eraikineko igogailuan, eta ate automatikoak jartzea, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko.
- Zutoinak jartzea Ingeniaritza Kimikoko gasen biltegira sartzeko arrapalan, segurtasuna hobetzeko gas botilak garraiatzean.
- C2 euste maila lortzeko beharrezko segurtasun neurriak hartzea 0.19A laborategian. UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzuak ematen du kalifikazio hori.
- Larrialdietarako argiei bere horretan eustea, hornikuntza elektrikoarekin arazoren bat egonez gero segurtasun handiagoa izateko.
- Via Apiako sarreretako ate automatikoak egiaztatzea eta, behar izanez gero, horiek etengabe irekita edukitzeko segurtasun sistema ezartzea, ebakuazio kasuetan segurtasun handiagoa izateko.
- Ikastegiko gune komunetan dauden kaxa elektriko guztiak ixtea, horien manipulazioa saihesteko.
- Irakaskuntza laborategietako kabina biologikok aztertzea.
- CD1 eraikineko aireztapen sisteman beharrezkoak diren berrikuspenak eta aldaketak egitea, sistemak ondo funtzionatzea ahalbidetzeko eta behin eta berriz sortzen diren eraikineko usainen arazoak saihesteko.
- CD2 eraikineko aireztapen sistema berrikustea eta sistemak ahalik eta ondoen funtziona dezala lortzeko beharrezko kudeaketak egitea.
- Behe tentsioko instalazioaren ziurtagiria lortzea industria nabearako (ziurtagiria nahitaezkoa da jarduera lizentzia lortzeko).
- Errotuluak jartzea korridoreetan eta ikasgeletan, leku horietan jatea debekatuta dagoela adieraziz (segurtasun eta higiene arrazoiengatik).
- Fakultateko irakaskuntza eta ikerketa laborategietan instalatutako Diphoterine kitak ordeztzea.
- Via Juliako eta barne patikoetako zuhaitzak kentzea, sustrairik gabe daudelako eta, ondorioz, erortzeko arriskua dutelako.
- Ez labaintzeko tratamendua aplikatzea Via Apiako Fakultaterako sarreran, istripuak saihesteko.
- Informatika geletako, gradu aretoko eta ondoko aretoko aire girotuaren ekipo guztiak berrikustea eta barnetik garbitzea.
- ECOCAT enpresaren bidez, 16000 kg hondakin kimiko kudeatzea.
- CONSENUR enpresaren bidez, 100 litro hondakin biosanitario baino gehiago kudeatzea.
- Fakultateko irakasle eta ikertzaileek eta AZPko langileek UPV/EHUK prebentzio arloan antolatutako prestakuntza ikastaro desberdinetan parte hartzea.

Ingurumenarekin zerikusia duten jardueren dagokienez, aurreikusitako Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren eta Fakultateak gauzatutako lehen Hobekuntza Planaren (2012. urtekoa) ikusapena egin da. Ikusapen horren ondorioz, Fakultateak Ekoscan ziurtagiria lortu du, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak emandakoa.



Egungo txostena egin ari garen garai honetan, 2013ko bigarren Ingurumen Hobekuntza Planaren jasotako ekintzak egiten ari gara (18. taula), honako alderdi hauek hobetzeko helburuarekin: produktu kimikoak biltegitratzea, paperaren kontsumo iraunkorra, paper kontsumoa murriztea, hondakinak murriztea eta ingurumen sentsibilizazioa.

18. taula. 2013ko Ingurumen Hobekuntza Planaren ezarritako ekintzak.


Helburua	Segimendu adierazlea	Ekintza
Produktu kimikoen biltegia legeztatzeke beharrezkoak diren gestioak egitea	Biltegia legeztatzeke eskaera Industrian entregatzea	- Biltegia irekitzeko beharrezkoak diren lege alderdiak betetzen diren jakiteko azterlan bat egitea.
Paper birziklatuaren erabilera % 2 handitzea	kg paper birziklatu /kg paper	- Paper birziklatua erosten jarraitzea. - Inprentan erosi edo egindako gutun-azalen, karpeten, azterketa paperaren, Idazkaritzako inprimakien eta matrikula gutun-azalen materialaren ordezt, paper birziklatua erabiltzea.
Paperaren erabilera % 50 murriztea	kg paper/erabiltzaile kopurua	- Paperaren erabilera iraunkorra egiteko kontzientziario kanpaina bat egitea Fakultateko irakasle eta AZPko langileen artean. - Azterketako paper erabilera kontrolatzeko kanpaina bat egitea irakasleen artean. - Eskuak lehortzeko paperezko xukaderak erabili ordezt, eskuak lehortzeko gailu elektrikoak erabiltzea. - Idazkaritzako ohiko izapideetan administrazio tresna elektronikoaren erabilera bultzatzea.
Hondakinen sorrera % 2 murriztea	kg ontzi birziklatu/erabiltzaile	- Irakaskuntza laborategietako ke kanpaiek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea. - Kafe makinetan "edalontzirik gabe" aukera erabiltzea, eta aukera horren berri emateko kanpaina egitea.
Ingurumenaren hobekuntza bultzatzea sentsibilizazio ekintzen bidez	Egindako ekintza kopurua	- Ingurumenaren Munduko Eguna edo tokiko beste egun adierazgarri bat aprobetxatuz, Fakultatearen ingurumen emaitzak ezagutaraztea eta ikasle eta langileen lankidetzat bultzatzea.

7. prozesua. Euskara eta Eleaniztasuna

Laguntza prozesu honen xedea Fakultateko jarduketa eremu desberdinetan euskararen erabilera zuzena areagotzeko ekimenak sustatzea eta barne eta kanpo komunikazioetan bi hizkuntzen erabilera bermatzea da. Irakasgaiak ofizialak ez diren hizkuntzetan ematea ere babesten du. Bi prozedura biltzen ditu:

7.1, Euskara

7.2, Ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuk



7.1, Euskara

2012/13 ikasturtean ikastegiko titulazioetan euskaraz eskainitako kredituak 19. taulan (lizentziaturak) eta 20. taulan (graduak) bildu dira.

Praktiges sistemak eskainitako praktika programaren baitan (HLH), Letren Fakultateko Itzulpengintza eta Interpretazioa titulazioko ikasle bat izan dugu, 2013ko ekainera bitartean itzulpen lanetan jardun dena. Dekanotza Taldeak sortutako dokumentazioa bi hizkuntzetan egotea da helburua.

Ikastegiko Batzarretan ere aldibereko itzulpen zerbitzua izan dugu.



19. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, lizentziaturen arabera segmentatuta. Iturria: GAUR

Titulazioa		Guztira
Biologiako Lizentziatura	Enborrekoak	108
	Derrigorrezkoak	10.5
	Hautazkoak	157
Fisikako Lizentziatura	Enborrekoak	151.5
	Derrigorrezkoak	6
	Hautazkoak	58.5
Geologiako Lizentziatura	Enborrekoak	181.5
	Derrigorrezkoak	16.5
	Hautazkoak	42
Matematikako Lizentziatura	Enborrekoak	91.5
	Derrigorrezkoak	36
	Hautazkoak	25.5
Kimikako Lizentziatura	Enborrekoak	156
	Derrigorrezkoak	22.5
	Hautazkoak	129
Biokimikako Lizentziatura	Enborrekoak	33
	Derrigorrezkoak	18
	Hautazkoak	22.5
Ingeniaritza Kimikoa	Enborrekoak	111
	Derrigorrezkoak	45
	Hautazkoak	18
Ingeniaritza Elektronikoa	Enborrekoak	27
	Derrigorrezkoak	12
	Hautazkoak	15

20. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, graduen arabera segmentatuta. Iturria: GAUR

Titulazioa		1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Maila zehaztugabea	Guztira	GAL
Biologiako Gradua	Oinarrizkoa	54	6				60	
	Derrigorrezkoak	6	54	48			108	12
	Hautazkoak				12	109.5	121.5	
Fisikako Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		60	54	12		126	12
	Hautazkoak				24	30	54	
Geologiako Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		60	60			120	
	Hautazkoak							
Matematikako Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		60	60			120	
	Hautazkoak							
Kimikako Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		60	48			108	
	Hautazkoak			12			12	
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	Oinarrizkoa	54	6				60	
	Derrigorrezkoak	6	54	60	6		126	12
	Hautazkoak				21		21	
Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Oinarrizkoa	48	27				75	
	Derrigorrezkoak	12	33	60			105	
	Hautazkoak							
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		60	60			120	12
	Hautazkoak				49.5		49.5	
Bioteknologiako Gradua	Oinarrizkoa	60					60	
	Derrigorrezkoak		54	60			114	
	Hautazkoak							

2012/13 ikasturtean euskarak bizitza akademikoan duen presentzia handitzeko helburuarekin egindako ekintza nagusiak honako hauek izan dira:


- Plaza elebidun hauen hornidura: i), irakasle agregatu bat, eta irakasle elkartu baten kontratua berritzea, 4 orduko lanaldiarekin, Elektrizitatea eta Elektronika Sailean, ii) irakasle agregatu bat Fisika Aplikatua II Sailean, iii) irakasle elkartu baten kontratua berritzea, 3 orduko lanaldiarekin, Biokimika eta Biologia Molekularra Sailean, iv) bi irakasle agregatu Landare Biologia eta Ekologia Sailean, v) irakasle agregatu bat Estratigrafia eta Paleontologia Sailean, vi) bi irakasle agregatu Kimika Analitikoa Sailean, vii) irakasle atxiki bat, eta bi irakasle elkarturen kontratuak berritzea, 6 eta 4 orduko lanaldiekin, Ingeniaritza Kimikoa Sailean.
- "Murgil Zaitetz Zientzian" hitzaldi zikloaren antolaketa. 15-20 irakasle eta ikertzaile eta ikasle bildu dira, eta zikloaren baitan honako hitzaldi hauek eman dira:

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 24	Energia sorkuntzarako teknologien erronka	Unai Castro Legarza (Deustuko Unibertsitatea)
Urriak 24	Giza ugalketaren erregulazio sistemen adibideak: sistema opioide eta kannabinoidea.	Naiara Agirregoitia (UPV/EHU)
Urriak 31	Euskara Batuaren Bigarren Jaiotza	Xabier Amuriza
Azaroak 7	Zientzia ustiatutako espezieen kudeaketan: aingiraren adibidea	Estibaliz Díaz (Azti, Tecnalien)
Azaroak 21	Urdaibai Bird Center, Europatik Afrikara hegoak astinduz. Hegaztiak behatzeko modu berri bat	Edorta Unamuno Mirandona (Urdaibai Bird Center)
Azaroak 28	Terminologia Sareak Ehunduz: unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia erreala ikusgai egin nahi duen programa	Igone Zabala Unzu (UPV/EHU)
Abenduak 5	Superkondentsadoreak	Eider Goikolea Núñez (Energigunea)
Abenduak 12	Ikerketa hidro-geomorfologikoak Baltistanen: Unibertsitateko ikertzaileak giza garapena bultzatzen	Imanol Goñi. Aritz Bizkarra (UPV/EHU)

- Fakultateko irakasleei zuzendutako "Terminologia Sareak Ehunduz" ikastaroa egin da, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Sailak ematen duen euskarazko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.
- Ikastegiko Euskara Batzordearen ekimenez, 2012/13 ikasturtean "Euskararen Txokoa" izeneko jarduerarekin jarraitu da. Jarduera honen xedea adibide errazak, terminoak eraikitze arauak, ohiko akatsak, etab. zabaltzea da, Fakultateko irakasle eta ikasleen euskararen erabilera hobetze aldera. Horretarako, atzilek jarri dira Fakultateko makina automatikoen ondoan. Hamabost egunez behin aldatzen dira kartelak, eta Fakultateko telebistetan ere ematen dira.

7.2, Ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuk

Ingelesez, frantsesez edota alemanez eskolak emateko akreditutako irakasleak 129 dira, guztira 136 akreditazioekin (23 akreditazio berri 2012/13 ikasturtean). Akreditazio kopuruaren eta akreditatutako irakasleen kopuruaren bilakaera ikus daiteke 6. irudian.



6. irudia.- Akreditazio kopuruaren eta akreditatutako irakasle kopuruaren bilakaera Zientzia eta Teknologia Fakultatean, 2004/05 ikasturtetik aurrera. Iturria: GAUR

2012/13 ikasturtean guztira 17 irakasgai ingelesez eman dira Graduetan, Lizentziaturetan edo Ingeniaritzetan (21. taula), ingelesez ematen diren masterrez gain, jakina (ikus "3. prozesua. Graduondokoa eta Ikerketa").

21. taula.- 2012/13 ikasturtean ZTF-FCTn ingelesez emandako irakasgaiak. Iturria: GAUR

Biologiako Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
26823	<i>Molecular Cell Biology</i>	Ibon Cancio Uriarte Maren Ortiz Zarragoitia
26831	<i>Zoology</i>	José Ignacio Saiz Salinas Ignacio Garin Atorrasagasta
26807	Vertebrates	José Ramón Aiertza Azurtza María Pilar Rodríguez Rodríguez
26834	Physical Antropology	Santos Alonso Alegre
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakaslea
26813	<i>Molecular Evolution</i>	Miren Itziar Alkorta Calvo
Fisikako Gradua eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
26852	<i>Mathematical Methods</i>	Alexander Feinstein Gotlinsky Diego Sáez Gómez Raul Vera Jiménez
Matematikako Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakaslea
26011	<i>Discrete Mathematics</i>	Silvia Marcaida Bengoechea
Kimikako Gradua		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
26115	<i>Experiments in Organical Chemistry</i>	Nuria Sotomayor Andueza
26129	<i>Experiments in Analytical Chemistry</i>	Luis Angel Fernández Cuadrado Nestor Etxebarria Loizaga
26705	<i>Organic Products of Pharmaceutical Interest</i>	José Luis Vicario Hernando
Biologiako Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
08091 (Ag. 26823)	<i>Cell Biology</i>	Ibon Cancio Uriarte Maren Ortiz Zarragoitia
08135 (Ag. 26807)	<i>Zoology: Chordates</i>	José Ramón Aiertza Azurtza María Pilar Rodríguez Rodríguez
Biokimikako eta Biologia Molekularreko Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakaslea
08164 (Ag. 26813)	<i>Molecular Biology Evolution</i>	Miren Itziar Alkorta Calvo
Fisikako Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakasleak
17374 (Ag. 26852)	<i>Differential Equations</i>	Alexander Feinstein Gotlinsky Diego Sáez Gómez Raul Vera Jiménez
17382 (Ag. 26852)	<i>Partial Differential Equations</i>	Alexander Feinstein Gotlinsky Diego Sáez Gómez Raul Vera Jiménez
Kimikako Lizentziatura		
Irakasgaiaren kodea	Irakasgaia	Irakaslea
20050	<i>Molecular Modelization</i>	José Miguel Aurrecoechea Fernández

8. prozesua. Komunikazioa eta Gizarte Hedakuntza

Laguntza prozesu honek Fakultatearen eta barneko zein kanpoko talde interesdunen arteko komunikazioa, informazioa eta elkarriketa kudeatzen du, ZTF-FCTren gizarte eragina eta hedakuntza bultzatzen ditu, eta bere jardueran lankide izaten dituen beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin dituen harremanak zaintzen ditu.

Halaber, prozesu honek Fakultateko kide diren eta partaide izatearen sentimenduak batzen dituen pertsona guztiek osaturiko gizarte sarea sortzen eta aktibo mantentzen du. Honako prozedura hauek biltzen ditu:


8.1, Informazioaren jakinarazpena

8.2, Gizartearekiko elkarrekintza

8.3, Gizarte erantzukizuna

8.4, Fakultatearen gizarte sarea

8.5, Praktikak ZTF-FCTn



8.1, Informazioaren jakinarazpena

Azpiprozesu honen helburu orokorra ikastegiko kolektibo desberdinen arteko (dekanotza taldea, sailak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta ikasleak) barne komunikazioa hobetzea da, informazio interesgarria ahalik eta gehien trukatzeko.

2012/13 ikasturtean 1083 mezu bidali zitzaizkien Fakultateko hainbat talderi, 4696 pertsona izena emanda dituzten 12 banaketa zerrendaren bidez. 22. taulak harpidetza hauen xehetasunak azaltzen ditu, baita horietako bakoitzari bidalitako jakinarazpen kopurua ere.

Honela xehatu da: Lcdciencias: 531 pertsona, Lcdpifciencias: 175 pertsona, Aluciencias: 3241 pertsona, Lcdpasciencias: 96 pertsona.

22. taula.- 2012/13 ikasturtean banaketa zerrendetan izena eman duten taldeei bidalitako jakinarazpenak.

Banaketa zerrenda	Izena emandako pertsonak	Bidalitako mezu kopurua
ZTFEgresados	180	89
ZTFBio	137	17
ZTFGeo	85	4
ZTFQuímica	73	9
ZTFMate	73	14
ZTFFísica	105	8
Lcdciencias	531	320
Lcdpifciencias	175	275
Lcdpasciencias	96	176
Aluciencias	3241	171
Guztira	4693	1083

Aktiboki sustatu da ikasleek erakunde posta erabiltzea. Horretarako erabili dira Harrera Ekitaldia, Enpresak eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroak Aurkezteko Jardunaldiak eta ikasleei zuzendutako beste ekitaldi batzuk. Bestalde, aurreko urteetan bezala, Alberto Magno Ospakizun Ekitaldian, *ZTFEgresados* banaketa zerrendaren berri eman zaie ikasketak amaituta dituztenei. Ikasketak amaitu dituzten ikasleek eta azken mailetako ikasleek parte hartzen duten ekitaldi guztietan ere aktiboki dei egiten zaie zerrenda horretan izena eman dezaten, oso interesgarria baita informazio erabilgarria lortzeko (prestakuntza osagarriko ikastaroak, lan eskaintzak, etab.).

Bestalde, ZFTIAZk ikasleen, prestatzen ari diren ikertzaileen eta ikasketak amaitu dituztenen banaketa zerrendei bekei (21 komunikazio), lan eskaintzei (24) eta beste gai batzuei (21) buruzko informazioa bidali die. Gainera, ZTF Renovatec eta Adegilan bezalako beste enplegu atari batzuetara harpidetuta dago, eta atari horretako lan eskaintzak erregularitasunez bidaltzen dizkie aipatu zerrendei. UPV/EHUko Enplegu Zentroan jasotako lan eskaintzak ere zabaltzen dira. Oro har, 2012/13 ikasturtean, ZFTIAZk 315 mezu bidali dizkie Fakultateko kolektibo desberdinei: irakasle eta ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak. Mezuak, gehienbat, lan eskaintzei, bekei, ekitaldiei eta askotariko jakinarazpenei buruzkoak izan dira.

Horrez gain, Fakultateko barne komunikazioa hobetze aldera, Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea Euskalitek 2012ko irailaren 25a eta azaroaren 26a bitartean emandako "Comunicación interna. Una implantación eficaz" ikastaroan izan zen.

8.2, Gizartearekiko elkarrekintza

Prozesu honen helburua Fakultateak gizartean duen presentzia areagotzea da, kanpoko talde interesdun desberdinekiko komunikazioaren bidez (enpresak, ikasketak amaitu dituztenak, ikastetxeak eta gizartea, oro har).

2012/13 ikasturtean zehar, Zientzia eta Teknologia Fakultateak gizartean bere presentzia areagotzeko lagungarriak diren kultura jarduera eta dibulgazio zientifikoko jarduera askoren antolaketan edota garapenean parte hartu du. (7.2 HE):

"Murgil zaitez zientzian"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 24	Energia sorkuntzarako teknologien erronka	Unai Castro Legarza (Deustuko Unibertsitatea)
Urriak 24	Giza ugalketaren erregulazio sistemen adibideak: sistema opioide eta kanabinoidea.	Naiara Agirregoitia (UPV/EHU)
Urriak 31	Euskara Batuaren Bigarren Jaiotza	Xabier Amuriza
Azaroak 7	Zientzia ustiatutako espezieen kudeaketan: aingiraren adibidea	Estibaliz Díaz (Azti, Tecnalia)
Azaroak 21	Urdaibai Bird Center, Europatik Afrikara hegoak astinduz. Hegaztiak behatzeko modu berri bat	Edorta Unamuno Mirandona (Urdaibai Bird Center)
Azaroak 28	Terminologia Sareak Ehunduz: unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia erreala ikusgai egin nahiduen programa	Igone Zabala Unzu (UPV/EHU)
Abenduak 5	Superkondentsadoreak	Eider Goikolea Núñez (Energigunea)
Abenduak 12	Ikerketa hidro-geomorfologikoak Baltistanen: Unibertsitateko Ikertzaileak giza garapena bultzatzen	Imanol Goñi, Araitx Bizkarra (UPV/EHU)

"Kimikaren historia, bere Nazioarteko Urtean"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 3	Los siete magníficos: primeros premios Nobel de Química (1901-1907)	Inés Pellón González (UPV/EHU)
Urriak 10	Ernest Rutherford y su escuela	Pascual Román Polo (UPV/EHU)
Urriak 17	El desarrollo de la catálisis en Europa y en España a comienzos del siglo XX	Joaquín Pérez Pariente (CSIC)
Urriak 24	El triunfo de la Química Orgánica	Pedro J. Campos García (Errioxako Unibertsitatea)
Urriak 31	Einstein ¿químico? Reflexiones sobre la historia de la ciencia	Bernardo Herradón García (CSIC)

"Blue Science. II. edizioa"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 3	La investigación en Ciencias Marinas en el Plan Nacional de I+D+I	Fidel Echevarria (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa)
Urriak 10	Importancia, valorización y conservación de la biodiversidad marina	Ricardo Haroun (BIOGES)
Urriak 17	Registro fósil de los mares antiguos	Humberto Astibia (UPV/EHU)
Urriak 24	La salud de los océanos	Manuel Soto (UPV/EHU)
Urriak 31	Ecosistemas del mar profundo: biodiversidad e impacto antropogénico	Eva Ramírez (CSIC)
Azaroak 7	Salidas profesionales	AztiTecnalia

"Epsilon-Delta Esperientziak"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 27	Frío, frío, frío	Gonzalo Muga (UPV/EHU)
Martxoak 13	Tres aplicaciones de la Estadística: El Challenger, la elección de Bush y la Selectividad	Juan Antonio Cuesta Albertos (Kantabriako Unibertsitatea)
Apirilak 10	Traduciendo a Matemáticas	Pablo Fernández Gallardo (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa)
Apirilak 17	Análisis y optimización de la gestión de una media maratón popular	Urko Antón
Apirilak 24	Magia y matemáticas: un binomio inseparable	Pedro Alegría (UPV/EHU)
Maiatzak 8	Actividades del ENEM	José Luis Ríos (Sevillako Unibertsitatea)

"Nanoteknologia: Txikiaren erronka / The big challenge of the small / El gran reto de lo pequeño"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 27	¿Qué es nano?	José Ignacio Pascual (CIC Nanogune)
Martxoak 6	Cómo hacer y dónde encontrar nanosistemas	Maite Insausti (UPV/EHU)
Martxoak 13	Las bacterias también producen nanopartículas	María Luisa Fernández-Gubieda Ruiz (UPV/EHU BERC Materials)
Martxoak 20	De la micro a la nanoelectrónica	Luis Hueso (CIC Nanogune)
Apirilak 10	New materials and new properties variaciones nivel del mar	Mato Knez (CIC Nanogune)
Apirilak 17	Cuando la nanotecnología se encuentra con la medicina	José Manuel Barandiaran García (UPV/EHU BERC Materials)
Maiatzak 15	Nanoikerketa UPV/EHU	Fernando Plazaola Muguruza (UPV/EHU)

"Geologiaren aplikazio praktikoak"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 20	Aplicaciones prácticas del estudio de los minerales de la arcilla	Javier Arostegui (UPV/EHU)
Otsailak 27	Algunas aplicaciones prácticas del temario de geología estructural, cartografía y geofísica	Arturo Apraiz (UPV/EHU)
Martxoak 6	Rocas ornamentales y de construcción: utilización y restauración	Francisco García Garmilla (UPV/EHU)
Martxoak 20	Hidrología-Hidrogeologiaren Irtenbide praktikoak	Iñaki Antigüedad (UPV/EHU)
Martxoak 27	Aplicaciones prácticas del estudio de la geotecnia	Valentín Ibarra
Apirilak 10	Aplicaciones prácticas del estudio de yacimientos minerales	Encarnación Roda (UPV/EHU)
Apirilak 17	Aplicaciones prácticas del estudio de la micropaleontología	Ainara Badiola (UPV/EHU)

"Actual Research in Biology"

Data	Izenburua	Hizlaria
Otsailak 27	Buscando dinosaurios: un viaje en el tiempo al Cretácico	Xabier Pereda (UPV/EHU)
Martxoak 6	Bivalvos: como crecer en un entorno trófico especialmente variable	Irrintzi Ibarrola (UPV/EHU)
Martxoak 13	Biomimética, soluciones innovadoras inspiradas en la Naturaleza	Imanol Oquiñena, Sergio González (UPV/EHU)
Martxoak 20	Estudios sobre la vegetación marina de la costa vasca: pasado, presente y retos futuros	Txema Gorostiaga (UPV/EHU)
Apirilak 10	La tierra móvil de Alfred Wegener: un nuevo paradigma en las ciencias de la Tierra	Nathalie Bardet (Historia Naturalaren Museoa, Paris)



"Spherical nanoparticles obtained by electric explosion of wire"

Data	Izenburua	Hizlaria
Apirilak 15	Method of Electric Explosion of Wire for spherical nanoparticles production	I.V. Beketov (<i>Institute of Electrophysics, Russia</i>)
Apirilak 15	De-aggregated nanoparticles produced by EEW: focus on nanofluids.	A.P. Safronov (Ural Federal University, Russia)
Apirilak 16	Characterization of nanosized spinel ferrite powders synthesized by coprecipitation and autocombustion method	J.C. Aphesteguy (Buenos Airesko Unibertsitatea, Argentina)
Apirilak 17	Magnetic biosensors	G.V. Kurlyandskaya (UPV/EHU)
Apirilak 17	Structural characterization of EEW nanoparticles	A. Larrañaga (SGIker, UPV/EHU)

"Nanopartikula esferikodun material berriak / new materials with spherical nanoparticles"

Data	Izenburua	Hizlaria
Apirilak 16	In situ modification of Fe and Ni magnetic nanopowders produced by the electrical explosion of wire	A.P. Safronov (Ural Federal University, Russia)
Apirilak 18	Ferrogels	A.P. Safronov (Ural Federal University, Russia)
Apirilak 18	Composites con nanopartículas esféricas como la base de aplicaciones biomédicas y materiales absorbentes en el rango de microondas	G.V. Kurlyandskaya (UPV/EHU)

"BioForo"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 24	Targeting the assembly of cell division protein FtsZ with small antibacterial molecules	José Manuel Andreu (Centro de Investigaciones Biológicas CSIC)
Urriak 24	Nuevas tecnologías en Genómica del cáncer	Ignacio Varela (IBBTec, Kantabriako Unibertsitatea)
Urriak 31	The truth under GWAS. Are they the major contributors to genomic risk for complex disease common to all humankind?	Arcadi Navarro (Institut de Biologia Evolutiva, Bartzelona)
Urriak 31	Repair – Immune cross talk in liver disease progression (Hedgehog-Chemikine-NKT axis)	Arcadi Navarro (Institut de Biologia Evolutiva, Bartzelona)
Azaroak 31	Mitochondrial dynamics, metabolism and disease	Antonio Zorzano (IRB, Bartzelonako Unibertsitatea)
Abenduak 5	Regulation by RNAs and Hfq in microbes: From stress response to virulence	UdoBläsi (Max F. Perutz Laboratories, Austria)
Abenduak 11	Light-induced reactions in cryogenic matrices	Igor Reva (Coimbrako Unibertsitatea, Portugal)
Abenduak 19	Third Alumni Research Meeting	Hainbat
Martxoak 20	Receptores de nucleótidos en el desarrollo y degeneración neural: papel relevante del P2X7	María Teresa Miras (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea)
Martxoak 25	Biogenesis of the nuclear envelope	BanafsheLarijani. (London Research Institute)
Apirilak 10	The molecular basis of pain	Peter McNaughton (Cambridgeko Unibertsitatea, Erresuma Batua)
Apirilak 24	Inflammatory mediators in the regulation of tissue growth and repair	Pura Muñoz (Universitat Pompeu i Fabra)
Maiatzak 15	How plants avert sodium toxicity in a saline environment - Challenging preconceived ideas	José Manuel Pardo (Ins. de Recursos Naturales y Agrobiología de Sevilla)
Maiatzak 29	Search and characterization of new inhibitors of angiogenesis	Ana Rodriguez Quesada (Málaga Unibertsitatea, DrugDiscoveryBiotech)
Ekainak 6	The microbiology and molecular biology of antibiotic resistance in <i>Acinetobacter baumannii</i> responsible for nosocomial infections	Sebastian Amyes (Edinburgoko Unibertsitatea, Erresuma Batua)
Ekainak 19	Differentiation and anti-tumor responses of gamma-delta T lymphocytes	Bruno Miguel de Carvalho (Instituto Medicina Molecular, Lisboa)
Uztailak 2	Use of the antiestrogen TAMOXIFEN to regulate sphingolipid metabolism in cancer cells : A driving influence on the ceramide effect	Myles Cabot (John Wayne Cancer Institute. Santa Monica CA, AEB)

"Galoisen urtea"

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 24	The memoirs of Évariste Galois	Peter Neumann (Oxfordeko Unibertsitatea, Erresuma Batua)

"II Workshop UFI-QOSYC"

Data	Izenburua	Antolatzailea
Apirilak 26	Métodos y Estrategias en Síntesis II / Síntesi prozesuen metodo eta estrategiak II	Kimika Organikoa II Saila (UPV/EHU)

"II One Day Workshop BERC Materials"

Data	Izenburua	Antolatzailea
Maiatzak 9	New (magnetic) materials for a better life	BERC Materials, ZTF-FCT

"BERC Materials mintegiak"

Data	Izenburua	Hizlaria
Ekainak 20	Nanocomposite magnets for energy applications	Michael Mchenryv (Carnegie Mellon Uni, AEB)
Ekainak 21	Artificial ferromagnetic nanostructures: An experimental platform for magnonics	Adekunle Adeyeyev (National University of Singapore)
Uztailak 2	Cúmulos de NiPd y NiPt estudiados por cálculos de primeros principios	Juan Faustino Aguilera (San Luis Potosíko Unibertsitate Autonomoa, Mexiko)
Uztailak 18	Microeddy Bordoni-type, relaxation controls spin glass transitions	Sergey Kustov (Balear Uharteetako Unibertsitatea)

"Epsilon-delta mintegiak"

Data	Izenburua	Arduradunak
Azaroa – martxoa	Towards P vs NP and related topics	Josué Tonelli Cueto (Epsilon-Delta elkarteak) Luis Martínez Fernández (UPV/EHU)

"Lehiaketak"

Data	Izenburua	Mota
Urria	Mikrokontakizun solidarioen lehiaketa	Literatura
Urria-azaroa	Chien-Shiung Wu	Panelak
Azaroa	IV. Zientziako Argazki Lehiaketa	Argazkiak
Azaroa	XXIV. Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Literatura Lehiaketa	Literatura
Azaroa-abendua	Geologiako argazki lehiaketa	Argazkiak
Maiatza	Fascination of Plants Day	Argazkiak

"Antzerkia"

Data	Izenburua	Taularatzea
Martxoak 8	¿Son raras las mujeres de talento?	Ikuskizunaren Arte eta Zientzien Masterra

"Tailerrak"

Data	Izenburua	Antolatzaileak
Martxoak 12-20	Oratoria eta Argumentazio tailerra	UPV/EHUko Ertabaida Kluba
Apirilak 22-23	Ekintzailatza eta Biomimetika tailerra	Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikasleak (ZITEK)
Maiatzak 8	Fascination of Plants Day	UPV/EHU, SGIKER, Mundo Verde

"Erakusketak"

Data	Izenburua
Azaroa	Geologiako argazki lehiaketaren antologia
Azaroa	Chien-Shiung Wu lehiaketako panelak
Abendua	Geologiako argazki lehiaketa
Martxoak-apirila	Momentu matematikoak. Matematikak zientzian, naturan, teknologian eta kulturen
Maiatzak 8	Fascination of Plants Day

Ziklotan multzokatutako hitzaldi hauek gain, nabarmentzekoa da ikastegian hitzaldi eta mintegi asko egin direla, sailek, ikerketa taldeek eta bestelakoek antolatuta. Beren berezitasunarengatik eta izaera dibulgatiboarengatik, honako hauek aipatuko ditugu:

Data	Izenburua	Hizlaria
Urriak 24	Investigación ornitológica en la Sociedad de Ciencias Aranzadi	Juan Arizaga (Aranzadi)
Azaroak 5	Instrumentos para la hipertermia magnética	NanoScale Biomagnetics
Azaroak 21	Programa de Proyectos Fin de Carrera en Cooperación para el Desarrollo de la UPV/EHU	Unai Etxebarria, Aitor Gómez (UPV/EHU)
Azaroak 21	Oportunidades en la Industria de la Ciencia	Fco Javier Cáceres (DG INEUSTAR), Daniel Orobengoa (INDUCIENCIA), Lander Gzlez Larrea (DG SCIENTIFICA S.L.)
Urriak 24	Investigación ornitológica en la Sociedad de Ciencias Aranzadi	Juan Arizaga (Aranzadi)
Martxoak 6	Zientzia eta Generoa	Enkarni Gómez Genua
Martxoak 15	Glicopéptidos derivados de mucinas. Diseño racional de vacunas contra el cáncer	Francisco Corzana (Errioxako Unibertsitatea)
Apirilak 9	New trends in the multidimensional data visualization	Gintautas Dzemyda (Vilnius Uni., Lituania)
Apirilak 11	Modelling Gas Separation in Zeolites and MOFs	Michael Fischer (University College, Erresuma Batua)
Apirilak 17	De los creadores de BOLONIA llega... EU2015, ¿el futuro de la universidad?	Grupo EU2015
Apirilak 24	La toxicidad ambiental de los nanomateriales y cómo estudiarla: las nanopartículas de plata	Enrique Navarro
Maiatzak 29	Iniciativas Europeas de Programación Conjunta JPI (Joint Programming Initiative): La JPI del Agua	Enrique Playán (Economía eta Lehiakortasun Ministerioa, Water JPIren koordinatzailea)
Uztailak 16	Combinando Arqueología, Ciencia y Tecnología: algunos proyectos	Marcos Martínón-Torres
Uztailak 18	RMN y Reconocimiento Molecular	Jesús Jiménez Barbero (Centro de Investigaciones Biológicas)

Honako ekitaldi hauek ere egin dira Fakultatean:

1. Ikasle hasi berriei Harrera egiteko Ekitaldia, ZTF-FCTko Paraninfoan, 2012ko irailaren 7an.
5. Material Berriak Masterreko Diplomak Entregatzeko Ekitaldia, dekanoa buru zela. Fakultateko Gradu Aretoan, 2012ko irailaren 28an.
6. Biofisika Unitatearen X. Urteurreneko Ospakizuna. Fakultateko Gradu Aretoan, 2012ko urriaren 23an.
7. I. Irakaskuntza Koordinazio Jardunaldia, Fakultateko Paraninfoan, 2012ko abenduaren 13an.
8. Gabonetako Lunch Tradizionala, Grande Salle-n, ikastegiko langile guztien parte-hartzearekin, 2012ko abenduaren 21ean.
9. Ekoscaneko Auditoreen Zentrora Bisita, 2013ko urtarrilaren 28an.
10. Zentro Teknologikoak eta Enpresak Aurkezteko VIII. Jardunaldia. Fakultatean, 2013ko otsailaren 18an.
11. Dekanoak eta Dekanotza Taldeko kideek BBVAko zuzendari izandakoen bisita jaso zuten; ikastegiko instalazioak eta bizitza akademikoa ezagutzeko interesa azaldu zuten. 2013ko otsailaren 27an.
12. Emakumearen Nazioarteko Eguna tarteko, UPV/EHUK antolatutako ekitaldiak Fakultatean egitea erabaki zen. Gradu Aretoan egin zen ekitaldi instituzionala, errektorea buru zela, eta I. María Goiri Saria entregatu zen. 2013ko martxoaren 8an.

13. Antzerki saioa Fakultateko Paraninfoan. "Son raras las mujeres de talento?" obra estreinatu zen. 2013ko martxoaren 8an.
14. Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak, 2013ko martxoaren 11n eta 13an.
15. Espainiako Matematika Olinpiadaren inaugurazio eta ospakizun ekitaldia. 2013ko apirilaren 5ean eta 6an.
16. GKE desberdinek eskatutako proiektuak UPV/EHUren %0,7 Elkartasun Fondoa elkarteari emateko ekitaldia. Fakultateko Gradu Aretoan egin zen, dekanoa bertan zela, 2013ko apirilaren 12an.
17. Dekanoak, Administrazio buruarekin eta ikastegiko administrariarekin batera, Aintzatespen eta Agur Ekitaldia egin zien Fakultatea utzi eta UPV/EHUko beste atal batzuetara pasatuko diren AZPko kideei. 2013ko apirilaren 30ean egindako ekitaldi honetan, opari bat banatu zen.
18. Ikastegi honetarako izendatutako AZPko kide berriei Ongietorri Ekitaldi batekin egin zitzairen harrera, dekanoa eta Dekanotza Taldeko zenbait kide bertan zirela, 2013ko maiatzaren 3an.
19. Dekanoak eta Dekanotza Taldeko kideek UPV/EHUko Pertsonalaren gerenteorde berriaren bisita jaso zuten, eta ikastegia erakutsi zioten, 2013ko maiatzaren 8an.
20. Euskal Zientzia Olinpiadetako sari banaketa, 2013ko maiatzaren 17an, Fakultateko Paraninfoan.
21. Felix Goñi irakasleak Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroak eskatutako "Espainiako Unibertsitate Sistema Berritzeko eta Kalitatea eta Eraginkortasuna Hobetzeko Proposamenak" lanaren laburpena aurkeztu zuen Fakultateko Gradu Aretoan, 2013ko maiatzaren 22an.
22. Kimika Analitikoa Saileko Francisca Vicente irakasle emerituari omenaldia egin zitzaion, bere erretiroa tarteko, Fakultateko Paraninfoan, 2013ko ekainaren 12an.
23. Fakultateak Luis Vega irakaslea, 2012ko Euskadiko Ikerketa Saria, omendu zuen. Lunch bat egin zen Grande Salle-n, 2013ko ekainaren 28an.
24. "Kimika Bizirik" ekimenean parte hartu zuten irakasleek senidetze bazkaria egin zuten 2013ko uztailaren 5ean.

ZTF-FCTren ordezkaritza izan da honako ekitaldi hauetan:

1. UPV/EHUren 2012-2103 Ikasturtea Inauguratzeko Ekitaldian, 2012ko irailaren 7an. Dekanoa bertaratu zen, Fakultatearen ordezkari gisa.
2. Unamuno ikasle egoitzaren 25. urteurrena ospatzeko Bizkaia Aretoan eginiko ekitaldi akademikoan. Dekanoa Fakultatearen ordezkari gisa izan zen ekitaldian, 2012ko irailaren 28an.
3. Bilboko Euskalduna Jauregian egindako UNIBASQ sinposioan izan zen dekanoa, 2012ko urriaren 17an.
4. UNEDen 2012-2013 Ikasturtea Inauguratzeko Ekitaldian, 2012ko azaroaren 5ean.
5. 2012ko azaroaren 8tik 29ra Bilboko Bidebarrieta Liburutegian ospatutako "Ellas hacen Ciencia" Astea. Fakultateko irakasleek antolatu zuten.
6. UPV/EHUren irudia ondoen zabaldu duten ikasleei eta Eztabaida Klubeko irabazleei Sariak Entregatzeko Ekitaldian. Elkano kaleko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Ekitaldi Aretoan. Dekanoak sariak banatu zizkien ikastegiko Matematikako ikasle irabazleei, 2012ko azaroaren 29an.
7. Radio Euskadik dekanoa elkarrizketatu zuen 2012ko abenduaren 18an.

8. 2013ko urtarrilaren 25ean. Dekanoa buru zela, ZTFren ordezkari talde bat Bizkaia Aretoan izan zen, Juan Ramón González Velasco irakasleari 2012ko XIV. Euskoiker Ikerketa Saria emateko ekitaldian.
9. Enplegu Zentro berriaren inaugurazioa Leioako Campusean, 2013ko martxoaren 6an. Bertan izan ziren dekanoa eta Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea.
10. UPV/EHUk Carmen Reinhart eta Maria Vallet doktoreak *honoris causa* doktore izendatzeko inbestidura ekitaldi ospetsua, Bizkaia Aretoan, 2013ko martxoaren 15ean. Vallet doktorearen izendapena Zientzia eta Teknologia Fakultateak proposatu zuen.
11. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren eraikin berrien inaugurazioan. Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen ekitaldiko buru, eta dekanoa ere bertan izan zen Fakultatearen ordezkari gisa. 2013ko apirilaren 29an.
12. UPV/EHUko doktore berriei birretak ezartzeko ekitaldi ospetsua, Aula Magnan. Bertan izan zen dekanoa, 2013ko maiatzaren 24an.
13. Parte-hartze aktiboa "Formar en competencias. Reto de la Universidad del siglo XXI" jardunaldian. UPV/EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Gradu Aretoan, 2013ko maiatzaren 31n.
14. 2012ko Euskadiko Ikerketa Saria entregatzeko ekitaldian, Lehendakaritzan. Ikastegiko ordezkari andana izan zen bertan, dekanoa buru zela, 2013ko ekainaren 11n.

Aurreko urteetan bezala, ikasturtean zehar Fakultatean ematen diren bederatzi graduen aurkezpena egin da hala eskatu duten bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Dekanotza Taldeko kideak eta ikastegiko irakasleak jardun dira zeregin horretan, "Zientzia eta Teknologia Fakultatearen enbaxadore" gisa.

Dekanotza Taldeko kideek eta dekanook berak Biologia, Geologia, Matematika eta Kimika arloko konferentzia nazionaletan parte hartzeak erakunde akademikoekin itunak egiteko edo, zenbait kasutan, indartzeko aukera eman du, haiekin trukeak egin eta benchmarking prozesuak gauzatze aldera.

2012ko azaroaren 15ean, Leioako Campuseko Aula Magnan, 2012ko Alberto Magno zeremonia egin zen, Fakultateko 2011/12ko XL. promozioko diplomak entregatzeko. UPV/EHUko Ikerketa arloko errektoreordea, Miguel Ángel Gutiérrez, eta dekanoa izan ziren ekitaldiko buru. Fakultateko XL. promozioa ikastegiko titulazio ikasketak amaitu dituzten 328 pertsonak osatzen dute: Biologiako Lizentziatura (70), Biokimikako Lizentziatura (41), Ingurumen Zientzietako Lizentziatura (4), Fisikako Lizentziatura (6), Geologiako Lizentziatura (33), Matematikako Lizentziatura (32) eta Kimikako Lizentziatura (64), Ingeniaritza Elektronikoa (8) eta Ingeniaritza Kimikoa (19), Biokimikako Gradua (25), Fisikako Gradua (26), Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (1). Ospakizun horretan, 2011/12 ikasturteko espediente akademiko hoberenen aintzatespena egin zen, eta diplomak eman zitzaizkien 2010/11ko Lizentziaturako Ezohiko Sariei. Ekitaldian, Matematika Analisisiko katedradun Luis Vegak "Las Matemáticas son para usarlas" hitzaldia eman zuen.

Alberto Magno Zientzia-Fikziozko Lehiaketa


Zientzia eta Teknologia Fakultateak **ALBERTO MAGNO Zientzia-Fikziozko Literatura Lehiaketaren XXIV. edizioa** antolatu zuen 2012/13 ikasturtean. San Alberto Magnoren egunean ezagutarazi zen epaimahaiaren erabakia, UPV/EHUko Aula Magnan urtero haren izenean egiten den ekitaldian. Hauxe izan zen epaimahaiaren epaia:

- UPV/EHU saria (1500 euro), gehiengoz, José Antonio Cotrinaren (Gasteiz) **El dios caído** kontakizunarentzat;
- Bigarren saria (1500 euro), Antonio J. Cebriánen (Albacete) **El laberinto de Kernov** kontakizunarentzat;
- Lehenengo saria (3500 euro) eman gabe utzi zuen, gehiengoz.

Deialdi honetan 102 kontakizun jaso ziren guztira; lehenengo aldiz, 100 kontakizun baino gehiago jaso ziren. Kontakizun guztietatik 74 onartu ziren, eta 28 baztertu egin ziren, ez baitzituzten arauak betetzen. 17 herrialde desberdinetatik bidali zizkiguten, eta gero eta handiagoa da atzeritarren parte-hartzea; edizio honetan, kontakizunen % 42 atzeritik heldu dira. Zehazki, Espainiako kontakizunetaz gain, honako herrialde hauetakoak jaso ditugu: Alemania, Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Kolonia, Cuba, Ekuador, Estatu Batuak, Frantzia, Guatemala, Honduras, Mexiko, Israel, El Salvador, Suedia, Uruguai eta Venezuela (43 izan dira atzerrikoak, % 42).

Aurreko edizioan lehiaketaren (eta, hedapenez, Fakultatearen) 35 aipamen zenbatu genituen hedabide desberdinetan.

